

## Kultura

Paco Obregón antzerkigilea 'Adiós, Chéjov' lanagaz itzuliko da Durangora, asteburuan > 11



## Sasoi berriak Urrijenan

Iurretako dantzarien artean tradizio handia du Urrijena jaiak. Ohiturak ere aldatu egin daitezkeela iritzita, 25 urteren ondoren, aurtan, lehenengoz, andrazkoek ere parte hartuko dute. > 3



Iñaki Izagirre

## Dolu eguna Elorrion, martitzenean lan-istripuan hildako gaztea gogoratzeko > 9

Endika Ruano 30 urteko gazte elorriarrak bizia galdu zuen joan zen martitzen gauean, Metal Smelting enpresan, makina batek harrapatuta. Albisteak samina eta protestak eragin ditu Elorrion. Lankideek eta lagunek mobilizaziora deitu zuten eguaztenerako. Eloorriko Udalak ere bat egin zuen protestagaz, eta, adierazpen instituzional baten bidez, dolu eguna izendatu zuen atzokoa.



## Tokiz aldatu gara (betiko dendatik 5 metrora)



Barrenkalea, 28 | 946 817 918

### Durango > 2

EAJk eta EH Bilduk udal kontuetan gezurretan ibiltzea leporatu diote elkarri

### Abadiño > 4

Lehen sektorea ezagutarazteko Baserri Eguna, gaur

### Zornotza > 8

Barloworld enpresak 71 langile kaleratuko dituela iragarri du

### Mañaria > 6

Enrike Huertak natura-zientziei buruzko museoa zabalduko du



## **Herririk herri**

# EAJren eta EH Bilduren arteko eztabaida, udaleko gezurtiaren bila

Udal kontuaren kanpoko txostena eskatu dute

**DURANGO** Markel Onaindia Udaleko diru kontuek EAJ eta EH Bilduren (Bildu eta Aralar) arteko eztabaida eragin dute, eta elkarri gezurretan ibiltzea egotzi diote. Jeltzaleen ustez, udalaren egoera ekonomikoa ona da, eta, koalizioaren iritziz, txarra.

EH Bilduk udaleko kontu orokorrari alegazioa aurkeztu dio, balantzea negatiboa dela eta ez positiboa esanez. Kalkulua egiterakoan, foru araua ez dutela jarraitu uste dute. Gainera, 7,8 milioi euroko zorra ezkutatzea leporatu dio EH Bilduk EAJri.

Aitziber Irigoras alkateak salaketak gezurtatu ditu. Adie-

razi du udalak ez daukala ez defizitrik, ez zorrik: “Ez dakigu nondik atera duten”. Eta salaketan kutsu elektoralak ikusten du: “Ezker abertzalearen estrategia udal hauteskundeetara bidean zarata sortzea da”. Alkateak azaldu du 2010ean 3,5 milioi euroko kreditu bat eskatu zutela inbertsioak egiteko, baina ez dutela erabili, eta ez direla interesik ordaintzen ari. “Diru hori badaezpada daukagu hor”, esan du, eta garatu bako proiektuerrako gordeta dagoela. Bestalde, Landako Gunea ordaintzeko 3 milioi euro falta dira. “Aurrez-

duko dugu”. Esaterako, gizarte ekintzetarako gorde dutela dio.

### Bilkuran, jarraipena

Martitzenean, osoko bilkuran jarraitu zuten prentsan piztutako polemika. Izan ere, EH Bilduren alegazioa atzera botatzea eskatu zuen gobernu taldeak, kontu hartzaileak landutako bigarren txosten bat argudio lez erabili. Baina proposamenak ez zuen aurrera egin. PSE-EEko Pilar Riosek esan zuen informea ez zaiela argigarri egiten, eta gaia atzeratzea eta udalaz kanpoko hirugarren txosten bat egitea eskatu zuen. Bilduk eta Aralarrek bat egin zuten.

Gainera, EH Bilduk salaketak mantendu zituen. Dani Maeztuk (Aralar) dokumentu ofizial bat erakutsi zuen, zeinetan banketxeekiko zorra 7,8 milioi eurokoa dela ziurtatzen den. Udaleko kontu hartzaileak eta alkateak berak sinatuta agertzen da. Hari beretik egin



EAJk eta EH Bilduk gezurretan ibiltzea egotzi diote elkarri.

zuen berba Eider Uribek (Bildu): “Guk ez dugu ezer asmatu. Hurrengoan begiratu zer sinatzen duzun”. Maeztuk uste du dirua ez dela aurrezten, baizik eta aurreikusitako dirua ez dela gastatzen. San Faustoko

eta Aramotzeko gizarte etxeak, Landakoko haur eskola eta kultur etxea ipini zituen adibide. Goiztidi Diazek (EAJ) erantzun zuen gestio arduratsua egiten dutela, eta salaketak gezurtatu zituen berriro.

# Kapitanena baserria erosi du udalak, gizarte etxearen proiektuari lotuta

Maeztuk uste du, baserria erosi arren, San Faustoko gizarte etxea ez dela egingo

### **DURANGO** M.O.

San Fausto auzoan gizarte etxe bat egitea aurreikusi zuen udalak 2010eko aurrekontuetan. Baina denbora pasa da, eta proiektuak ez du aurrera egin.

Martitzeneko udalbatzarrean gizarte etxeagaz zerikusia daukan tramite bat egin zuten: Kapitanena baserria desjabetzea. Durangoko herriguneko azkeneko baserrietako bat da, eta gi-

zarte etxea eraikitzeko baserria bota behar da.

Baina ez dago argi gizarte etxea eraikiko den. “Ez da egingo, auzotarrek esan dutelako beste behar batzuk daudela”, azaldu zuen Dani Maeztuk (Aralar). Kapitanena erosteko 706.000 euro erabili ditu udalak, eta Maeztuk kritika egin zuen inbertsioa proiektua egoera horretan egonik egiteagatik: “Bere dirutik 706.000 euro gastatu ditugula esan behar diogu herritarrari, eta ezin diogu azaldu zergatik”. Aralar eta Bildu abstenitu egin ziren bozketan.

Goiztidi Diazek adierazi zuen baserriaren jabeekin daukaten konpromisoa bete egingo dutela. “Guk hitza betetzen dugu”.



Kapitanena baserria botatzea dago aurreikusita.

# Tabirako obra udala informatu barik egin izana kritikatu du PSEk

Biribilguneak ez du irteerarik Gasteiz bidea kalera

### **DURANGO** M.O.

Aldundiaren proiektuaren arabera, biribilguneak ez du Gasteiz bidea kalera irteerarik edukiko. PSE-EEkoen ustez, Alde Zaharra doan sarbide zuzen bakarra kenduko dute horrela. Gidariekin Intxaurrondo kaleko biribilguneraino joan, eta buelta hartu beharko dute Alde Zaharrean sartzeko.

PSE-EEko Pilar Riosek prentsa ohar bidez azaldu du obra udala “informatu eta udalari galdetu barik” diseinatu dutela, eta, horregatik, “hutsune larriak” dauzkala. Garrantzitsuena da biribilguneak Gasteiz bidea kalera ez duela irteerarik

edukiko. Aldundia kritikatu du zinegotziak, eta kezka agertu du EAJk gobernatzen dituen bi erakundearen artean “komunikazio falta” egoteagatik. “Ahalik eta arinen” Aldundiagaz hartu-emanetan ipintzeko eskatu dio Riosek gobernu taldeari.

Zinegotzi sozialistak gogoratu du Tabirako biribilgunean 92 istripu gertatu izan direla orain arte: hiru pertsona hil, eta beste hiru larri zauritu dira. Horregatik, “puntu beltza” dela esan du. “Aldundiak jakin du zelako arriskua eta funtzionamendu txarra eduki dituen biribilguneak, eta durangarrak arriskuan ipintzen ibili da”.

### Laguntzaileak:

**BFA DFB**

**Bizkaiko Foru Aldundia**

Kultura Saila

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

diruz lagundutakoa

**anboto**

komunikabideak

**Zuzendaria:** Jone Guenetxea Arrinda.

**Administrazio burua:** Itziar Belar Zubizarreta.

**Administrazioa:** Miren Abasolo Txabarri.

**Publizitatea:** Goretti Alonso Armendia, Amaia Huarte Basabe, Itxaso Altuna Marina.

**Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso Esteban Urriaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri eta Amaia Ugalde Begoña.

**Maketazioa:** Eider Alberdi Bengoa.

**Zuzentzailea:** Jon Ander Urkiaga Egidazu.

**Argazkilariak:** Kepa Aginako, Zalaoa Fuertes, Lehiar Elorriaga.

2014ko urriaren 3a, 12. urtea - 560. alea

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 11.500 ale



# Plazan ibilitako denak, andre eta gizon, Urrijenan 'jantzan'

Dantzarien jaia urriaren 12an ospatuko dute, andreen parte-hartzeagaz



Eguaztenean egin zuten entsegu orokorra. Iñaki Irazabal 'Kiña'.

**IURRETA** Amaia Ugalde Eguazten iluntzea Iurretako plazan. Txistu eta atabal doinuak lagunduta, dantzan, *jantzan* dabilta iurretarrak. Urrijenarako entsegua da. Duela 25 urte sortu zen Urrijena, dantzariak eta dantzari ohiak batzeko, eta orain arte gizonak bakarrik hartu dute parte. Egungo Urrijena Batzordeak oraindik aurrera emakumeei ere gonbidapena luzatzea erabaki du. Deiak arrakasta izan du: ehun emakume inguruk parte hartuko dute aurtengo lehenengo aldiz, Urrijenan.

Partaide berriak ilusioz ikusten dituzte Unai Esturo

eta Larraitz Zabala batzordeko kideek: "Arriandiko taldea ikustea besterik ez dago. Batzuek guztiz ahaztuta eduki dituzte dantzak, eta orain topera dabilta ikasi guran, eta euren kabuz entseguak egiten". Askok, umetan dantza egin eta gero, urtetan ez dute hartu-emanik izan dantza taldeagaz.

Sanmigeletan mutil eta neska dantzarien presentzia berdindu ostean dator Urrijena parekidea. Emakume batzuek dantzan egingo dute, eta nagusienek kalejiran eta kantuan parte hartuko dute. Belaunaldiak batzeko eguna da azken batean Urrijena; parte hartuko duten gizon zaharrenek 80 urtetik gora dute; andreek 75-76 urte.

**Dantzarien datu-basea** Emakumeei Urrijenarako deia egiteaz gainera, andre dantzarien datu-basea egiten hasi da aurtengo dantza taldea. Gizonez-

koena eginda dago, eta andraz-koena falta da: "Saiatu gara denak batzen, baina ez da erraza, eta lehen urtean ez dugu lortuko", azaldu du Unai Esturok. Artxiborako datuak eta argazki zaharrak batzea da asmoa.

**Historikoki bigarren mailan** Anton Mari Aldekoa-Otalorak eta Kristina Mardarasek nagusien taldean parte hartuko dute Urrijenan. Iurretako auzotako dantzariak batu, eta plaza utzita zutenak plazaratzeko ideiaz sortu zen Urrijena. Emakumeen partaidetzagaz pozik dago Mardaras: "Entseguak ikusten eta txaloka nabil". Historikoki emakume dantzariak bigarren mailan egon izan direla gogoratu dute, eta andreen sokadantza berreskuratzeko lana nabarmendu dute. Aurtengo Urrijena horrela laburtu du Aldekoa-Otalorak: "Uniformea jantzita ibili garen denok batuko gara".



Leire Aiartzagüena Bravo

Etxeko gizonak, trajeagaz dotore, dantzan irteten ziren jaia izan da Urrijena niretzat umetatik. Gu laguntzen ibiltzen ginen. Ni mutilen dantzak ikasten ere hasi nintzen, egunen batean Urrijenan parte hartzeko esperantzaz. Orain neskekin parte hartu ahalko dut. Oso jai berezia da herriarentzat.

Aurtengo hirugarren bider parte hartuko dut Urrijenan. Hasieran ingurukoak elkartzeko hasi ziren Urrijena egiten, eta neskek parte hartu gura izatea normal ikusten dut; denok batera mugitu gara, eta dena irteten da ondo. Kriston giroa egoten da, eta inoiz plazan ikusi ez ditugunak dantzan ikusteak animoa ematen du jarraitzeko.



Bidarte Zugaza-Artaza Uriondo



Kontxi Etxeita Beaskoetxea

10 urteagaz egin nuen nik azkeneko aldiz dantzan, eta entseguetan izerdi piloa botatzen gabilta. Arriandin aparteko entseguak ere egin ditugu, entsegu orokorretan galduta ibili gara eta. Urrijenan, mutilak ikusita ere, beti emozionatu izan naiz. Aurtengo dena ondo irteten bazaigu, negar anpuluaren bat ere irtengo zait.

## URRIJENAKO EGITARAUA

**09:30**  
Maspeko aparkalekuan taldeen argazkiak

**10:30**  
Kalejira Montoitik plazara

**11:00**  
Meza nagusia San Migel elizan

**Ondoren**  
Dantzari-dantza plazan:  
Agintariena - zortzinangoa - ezpata joko txikia - banangoa - txotxongiloa.  
Gorulari dantza:  
Domingilloa - arku dantza - estanpa.

**Jarraian**  
Omenaldia 65 urtetik gorakoei

**Amaitzeko**  
Andreen eta gizonen sokadantza

**15:00**  
Bazkaria Tellituko aparkalekuan. Karpa ipiniko dute, eta taberna zerbitzua eta berogailuak egongo dira.

**18:00**  
Erromeria eta dantza-kantu poteoa Oxabi taldeagaz, karpan eta herrian zehar.

**100**  
emakume inguruk hartuko dute parte lehenengo aldiz Urrijenan





# Baserri Eguna: lehen sektorea bultzatzeko eta ezagutarazteko

Traña-Matiena plazan 17:00etatik 20:00etara ospatuko dute III. Baserri Eguna

**ABADIÑO** Itsaso Esteban  
III. Baserri Eguna ospatuko dute Abadiñon, gaur. Batetik, herriko baserritarren ekoizpenak ipiniko dituzte salgai ekimen horren barruan, eta, bestetik, baserri munduagaz zerikusia duten tailerrak eta jolasak antolatuko dituzte haurrentzat zein nagusientzat. Alluitz Natura enpresak Udalaren laguntzagaz antolatu du ekimena hiru garren urtez. Lehen sektorea bultzatzea, ezagutaraztea eta kontsumo arduratsua sustatzea dituzte helburu.

Gaur, 17:00etatik 20:00etara, Traña-Matiena plazan garatuko dituzte Baserri Eguneako ekitaldi gehienak, baina euria egiten badu, pilotalekura lekualdatuko dituzte ekitaldiak.

Abadiñoko baserrietako ortuariak, ezitia, ogia, gazta, txa-


kolina eta beste hainbat produktu ipiniko dituzte Baserri Egunean salgai. Ardiak eta ahuntzak ere eramango dituzte baserritarrek Traña-Matienara, umeen gozamenerako. Hau-

Alluitz Natura enpresak Abadiñoko Udalaren laguntzagaz antolatu du III. Baserri Eguna

Esaterako, Abadiñoko baserrietako ortuariak, ezitia, ogia, gazta eta txakolina salduko dituzte

rrentzako tailerretan, plastilina ekologikoagaz eta artileagaz jolasteko aukera eskainiko diete umei, eta txokolatezko taloak egiten ere ikasi ahalko dute. Gainera, herri kirolek ere edukiko dute Baserri Egunean lekuri. Besteak beste, III. Txapel Jaurtiketa Lehiaketa jokatu dute. Haurrak eta nagusiak lehiatuko dira txapelketa horretan, eta irabazleek Eusko Label ziurtagiridun produktu sorta bana jasoko dute saritzat.

Baserri Eguneako egitarauaren barruan, bestalde, hainbat eskola ume eta beharrian bereziko lagun hartuko dituzte Alluitz Natura baserrian, datozen egunetan; baserriko bizi-modua ezagutuko dute, eta gazta zelan egiten den eta artilea zelan lantzen den ikusiko dute, besteak beste.



Ardiak eta ahuntzak eramango dituzte baserritarrek Traña-Matienara.

## Igerilekuaren kudeaketa esleitzeko baldintza berriak onartu ditu udalak

Lehiaketa publikorako baldintzen pleguaren alde bozkatu dute Aik eta EAJk



Azpikontarazioa lehenestea egotzi zion Bilduk udal gobernari.

**ABADIÑO** I.E.

Igerilekua kudeatzeko indarrean egon den esleipena amaitu egingo denez, aurrerantzean zerbitzu hori eskainiko duen enpresa hautatzeko prozesua abiatu du Abadiñoko Udalak. Martitzeneko udalbatzarrean udal gobernuaren eta EAJren aldeko botoekin onartu zituzten lehiaketarako baldintzak. Bilduk, ostera, zerbitzu horrek kudeaketa publikoa edo pribatua izan beharko lukeen mahai-gaineratu zuen, eta baldintzen

kontra bozkatu zuen. Gobernu taldeari zerbitzuen azpikontarazioa lehenenestea egotzi zion Bilduk: “Bestelako aukerak aztertu beharrean, azpikontaraziora jotzen dute”, kritikatu zuen Aitor Azuetak. Prozeduragaz ez daudela ados adierazi zuen, eta, lehiaketarako baldintzen inguruko eztabaidan sartu barik, ezezko botoa emango zutela iragarri zuen. Eneko Etxebarria EAJko zinegotziak, aldiz, plegu berrietan zehazturiko baldintzekin “zerbitzua hobetzea lortu” daitekeela azaldu zuen.

Bestalde, Jose Luis Navarro alkateak azpimarratu zuen orain arte ere igerilekuaren kudeaketa enpresa pribatu batek egin duela, eta “zerbitzuak ondo funtzionatu” duela.

## Saihesbidearen proiektuagaz aurrera egiteko desjabetzea

**ZALDIBAR** I.E.

Euskal Herria kaleko kamioien trafikoa gutxitzea helburu duen saihesbidearen proiektuagaz aurrera jarraitzeko, Acha-Orbea enpresaren sei metro koadroko lursaila desjabetzea onartu zuen udalak eguneko udalbatzarrean.

Bilduk eta PSE-EEk bozkatu zuten desjabetzea egitearen alde, kontra EAJk egin zuen, eta abstenitu egin zen PP. Foru kaletik igarotzen diren kamioiei biratzeko leku handiagoa ematea da egingo dituzten lanen helburua.

Inervol enpresak saihesbidearen proiektuari aurkezturiko errekurtsoren gaia mahai-gaineratu zuen Nerea Gariagoitia EAJko bozeroalek eguneko udalbatzan. “Zelan da posible proiektuak aurrera jarraitzea Inervolek aurkezturiko errekurtsuari erantzun barik?”, galdetu zuen. Enpresa horrek helegitea forma egokirik barik eta epea kanpo aurkeztu zuela erantzun zuen Jose Andres Urizar Hirigintza zinegotziak: “Baina proiektuan bertan jasota dago Inervoli ez diogula bere jarduna kalte-tuko”. Enpresako kamioien sartu-irtenak eta bidegorriko zirkulazioa modu seguruan zelan egin adostu gura dutela azpimarratu zuen Jose Andres Urizar zinegotziak.

## Bihar inauguratuko dute Zaldi Gorri ibilbidea

Urkiolako parke naturalean egingo dute Zaldi Gorri ibilbidea inauguratzeko ekitaldi ofiziala, bihar

**ABADIÑO** I.E.

Zaldi Gorri IE 011 ibilbidea inauguratzeko ekitaldia egingo dute, bihar, Urkiolan. Zaldi ibilbide zirkularra da Zaldi Gorri izeneko, eta duela hilabete batzuk zabaldu zuten ibilbidea Urkiola landa garapen elkartaren ekimenez, baina biharko antolatu dute zirkuitoa ezagutarazteko ekitaldia. Urkiolako parke naturalean elkartuko dira ekitaldian parte hartuko dutenak,

bihar, 10:00etan, eta 10:30ean moztuko dute inaugurazio zinta. Horren ostean, ibilbidearen zati bat egingo dute bertaritzen direnek elkarrekin. Hiru orduko mendi buelta egingo dute zaldian, eta, Urkiolako santutegiaren inguruan, jan edanean elkartuko dira ibilbidea amaitzerakoan.

Antolatzaileek azaldu duteenez, ekitaldietan parte hartzea doakoa izango da, baina izena

eman behar da ibilbidean zein osteko parriladan parte hartze-ko: [urkiola@urkiola.org](mailto:urkiola@urkiola.org) e-mail-ean eman daiteke izena.

Landa eremuetan bestelako turismo mota bat bultzatu gura

izan du Urkiola landa garapen elkartek zaldunentzako ibilbide hori atonduta. “Bertako ekonomia dibertsifikatzea eta berpiztea” du Urkiola landa garapen elkartek helburu.



Ibilbidearen zati bat elkarrekin egingo dute, bihar, parte-hartzaileek.




**Baserriko  
Txerria**

 Cerdo  
de Caserío

## Baserriko txerria

### Kalitate, zapore eta samurtasun apartak

Eusko Label ziurtagiridun baserriko txerri okela kalitate eta berme sanitario handiko produktua da, oso-osorik EAEn hazi, hil eta zatikatutako abereetatik datorrena. Txerriok askatasunean hazten dira, eta hazkuntza hori kontrol zorrotzarekin egiten da, kalitate handiko okela lortzeko, infiltratutako koipe kantitate handiagoarekin eta zapore eta samurtasun apartarekin.

### Horrela identifikatzen da

Eusko Label ziurtagiridun baserriko txerria harategi baimenduetan baino ez da saltzen, eta Eusko Label ziurtagiriaren irudia duen etiketa-ziurtagiri zenbakidunaren bidez identifikatzen da, produktuaren benetakotasuna bermatzeko. Era berean, hestebeteak eta beste gutizia batzuk ere aurkituko dituzu, ontziratzen diren lekuan bertan "Eusko Labeldun Baserriko Txerriz presatuta" etiketa jarrita.



## Egin zaitez Anbotoren lagun!

ANBOTO astekariaren aldeko konpromisoa adierazten dute ehunka irakurlek urtero *Anbotoren lagun* eginda. Astekaria, barikuetan, Durangaldeko postontzietan doan banatzen den arren, badago babes ekonomikoa emateko aukera ere, urtean 20 euro ordainduta. ANBOTO 2002an sortu zen, Durangaldeko euskara elkartearen ekimenez. Doan banatuko zela jakitun, bazeuden babes ekonomikoa emateko prest agertu ziren hainbat euskaltzale, eta *Anbotoren lagun* figura sortu zuten. Zailtasun ekonomikoei aurre egiteko diru iturri garrantzitsua da ANBOTOrentzat. Lagun

-talde horri eskerrak emateko sasoia dela iritzita, kanpaina berria abiatu dugu. Lehendik lagun direnek zuzenean Eusko Label produktuen otzara baten zozketan parte hartuko dute. Gainerakoek, *Anbotoren lagun* egiteko aukera dute. Orrialde honen behealdean dagoen kupoia bete, eta Bixente Kapanagako 9ra (Iurreta) bidali, [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org) helbidera idatzi, edo 946 816 558 telefono zenbakira deitzeko aukera duzu; ANBOTOri babesa emateaz batera, otzararen zozketan parte hartuko duzu.

Urtean 20 euroko diru-laguntza emateko prest nago!  
**Lagun egiteko 3 aukera dituzu**

|                                    |                                 |                                                                                                                                                                               |
|------------------------------------|---------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| @<br><b>anboto@<br/>anboto.org</b> | ☎<br><b>946<br/>816<br/>558</b> | ✉<br>Izen-deiturak<br>_____<br>Helbidea / Herria<br>_____<br>Posta kodea<br>_____<br>Telefonoa<br>_____<br>Anboto komunikabideak - DHK<br>Bixente Kapanaga, 9 · 48215 IURRETA |
|------------------------------------|---------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|



**'Anbotoren lagun'**  
artean Eusko Label  
produktuen otzarak  
zozkatuko ditugu

**anboto  
lagunak**



**anboto**



# Laster zabalduko dute Hontza, natura-zientzien museoa

Museoa hilabete baten bueltan zabaltzea posible ikusten du Enrike Huertak



Enrike Huerta, museoko erakusketa gelan.

**MAÑARIA** Markel Onaindia Hegaztiak, armiarmak, tximeletak, krustazeoak, arrainak... Denetarik topatu ahalko da laster Mañarian zabalduko duten natura-zientzien Hontza museoan. Enrike Huerta da proiektuaren bultzatzailea, eta egia bihurtuko da 14 urte gaz imajinatzen hasi zen espazioa. Hilabete baten bueltan zabaltzea posible ikusten du, baina ez du oraindik data ofizialik eman.

*Kirikiño* idazlearen etxean, Zumelaga eraikinean, presta-

tu du museoa. Urte hauetan guztietan batutako ondarearen erakusketa bat ipini du. “Nik jendearentzat egiten dut lan, ez niretzat”, azaldu du Huertak. Itsasoko animalietan da espezialista, baina fauna zabala dago ikusgai. Bertan dago, esaterako, Mañariko kobetan topatu zuten hartzaren hezurdura. Krustazeoen inguruko monografiko bat ere eskainiko du, eta tartean Japoniatik dohaintzan bidalitako karramarro erraldoi bat dago, 2,9 metrokoa.

1986an zabaldu zuen lehenengo museo Mañarian; hiru urtez iraun zuen, eta 6.000 lagun bishitak jaso zituen. Gero, Durangon saiatu zen; baina, dioenez, ez zuen udalaren eta Aldundiaren laguntzarik eduki. Mañarian eraikina erosi dute familiakoe, eta bertako udalagaz elkarlanerako esperantza du Huertak. Momentuz lehenengo solairua bakarrik egongo da zabalik, eta hurrengo fase batean goikora hedatu gura du, asko dauka eta erakusteko.

## Barre egiteko eta garuna lantzeko ikastaroak eguenetik aurrera

**IZURTZA** Joseba Derteano Eguenetako Klubak urriaren 9tik aurrera ekingo dio aurtengo denboraldiari. Datorren egunetik abenduaren 17ra bitartean barre terapia eta garuna lantzeko *Brain training* ikastaroak abiatuko dituzte.

Ikastaro biak txandatzan joatea da asmoa; aste batean bata eta hurrengoan bestea. Eskolak eguenero izango dira 17:00etatik 18:30era, jubilatuen egoitzan. Ikastaroak adin guztietako herritarrei zuzenduta daude, doakoak dira, eta interesatuek izen-ematea jubilatuen egoitzan bertan egin dezakete, eguenero.

Jolasen bidez barre terapia-gaz harremanak sustatzea da helburua. Apurka-apurka lotsak galtzeko eta elkar hobeto ezagutzeko baliatuko dute.

Bestetik, garuna lantzeko ikastaroa da aurtengo nobedadea, eta ordenagailuko jokoen bidez egingo dute: esaterako, kalkuluak, logika eta ulermen landuko dituzte bertaratzen direnek.

## Udalak lokal bi jarriko ditu alokairuan, laster

**MALLABIA** Jone Guenetxea Negozio berrien sorrera bultzatu gura du udalak, herrian falta diren zerbitzuak herrira ekartzeko. Ekintzaileei erraztasunak eman guran, mediku etxea dagoen eraikinean, farmazia ondoan kokatutako lokal bi alokairuan jarriko ditu errenta oso baxuagaz. Mila Mondragon alkateak azaldu duenez, pleguak laster aterako dira, eta buletin ofizialean argitaratzen direnean, 30 eguneko epea izango dute interesa dutenek beraien proiektua aurkezteko. Mallabiko Udalak hiru urterako kontratua eskaini du, baina epea luzatzeko aukera dago.

Lokal bi horietan ile apaindegia, estetika zentroa, logopedia edo fisioterapia zerbitzua, arropak konpontzeko denda, mertzeria, paper denda eta beste hainbat zerbitzu eskaini daitezkeela aurreikusi du Mallabiko Udalak. Proiektua aurkezten dutenek ezingo dute beste negoziarik izan beraien izenean. Interesa duenak udal txerara jo dezake informazio gehiago eskatzera.

# Garaiko I. Mendi Martxa egingo dute bihar, oinez eta bizikletaz

Herriko triatloi taldeak antolatu du, aurten ezin izan dutelako triatlota egin

**GARAI** M.O.

Garai mendizalez beteko da bihar, I. Mendi Martxaren harira. Herriko triatloi taldeak triatlota antolatu izan du herrian azken hiru urteetan, baina aurtengo udan ezin izan dute egin, Herrizaingo Saitetik ez dutelako baimenik jaso. Hori ikusita, ordezko ekimen bat egitea pentsatu dute. Ibilbidea oinez eta bizikletaz egingo dute aukera egongo da, eta Oiz mendiaren magaletik ibiliko dira partaideak.

Goizeko 08:30ean irtengo dira plazatik martxa ibiltari-koak. Hogei kilometro izango dituzte aurretik, eta indarrak hartzeko antolakuntzak guneak jarriko ditu seigarren eta ha-

Oinez eta bizikletaz egiteko aukera egongo da, eta Oiz mendiaren magaletik ibiliko dira

mahirugarren kilometroetan. Helmugan ere jatekoa eta edatekoa edukiko dute. Mendiko bizikletako ibilbideari 10:00etan ekingo diote, plazan bertan. 30 kilometro egin beharko dituzte, eta jan-edanerako guneak zazpigarren eta 21. kilometroetan egongo dira.

Partaideek hamar euro ordaindu beharko dute, eta dortsalak hartzeko arinago egon beharko dute plazan: ibiltari-koek 07:30etik aurrera, eta bizikletariak 09:00etan hasita.



Orain arte triatlota antolatu izan dute Garain. Zigor Garzia

## Oizera igoko dira esklerosi anizkoitzari aurre egiteko

**BERRIZ** Amaia Ugalde

Urriaren 19an Oizera irteera egingo dute Berriztik. Irteeran izena ematen dutenek hiru euro ordainduko dute, eta, azken urteetan legez, diru hori Esklerosi Anizkoitzaren Bizkaiko Elkartera bideratuko dute. Oizera iguera antolatzen duten hamaseigarren aldia da, eta eguraldia gorabehera, urtero 80 lagunetik gora animatzen dira.

Izena emateko dirua, hiru euro, Esklerosi Anizkoitzaren Bizkaiko Elkartera bideratuko dute

Hitzordua goizeko 09:00etan ipini dute, Elizondo plazan. Irteeran parte hartzeko izena urriaren 13tik 18ra eman daiteke Berrizburu kiroldegian, eta irteera egunean bertan ere bai, 08:30etik 09:00etara. Oizera igo ostean, udalak otordua eta sorpresak banatuko ditu.

## Bi lur-jabe eta sei herritar kooperatiban interesatuta

**ATXONDO** J.D.

Kooperatiba bidezko etxebizitzaren eredu landa eremura zabaltzeko saiakera egiten ari da udala. Horretarako, izen-ematea ireki zuen landagunee-tako partzelak birkalkifikatzeko interesa duten lur-jabeei zein lurzati horietan kooperatiba bidezko bizileku proiektuan parte hartzeko interesa duten herritarrei zuzenduta. Epea amaitu da, eta lur-jabe bik eskaini dituzte euren lurrak: Arrazolan bat, eta Marzaa inguruan beste bat. Landagunee-tan eraikitzeak interesa, berriz, sei lagunek erakutsi dute.

Hurrengo urratsa, teknikariak lur-jabeekin egotea da, lurzatiek baldintzak betetzen dituzten eta zer ezaugarri dituzten aztertze. Ondoren, lurzatiak baliozkoak badira, Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean sartuko dituzte. Plana aurtengo urtarrean onartu zuten behin-behinean, baina, alegazioak eta sektorekako planak kontuan hartuz gero, aldaketak izan ditu, eta berriro onartzeko asmoa dute.



# Etxea izango dute ardatz Europako Ondarearen Jardunaldietan

Urrirako egitaraua prestatu dute zazpi herritan

**DURANGALDEA J.G.**

Gerediaga Elkartek eta Urkiola landa garapen elkarteak, Bizkaiko Foru Aldundiagaz batera, Europako Ondarearen Jardunaldiak antolatuko dituzte urrian, Durangaldean. Aurtan, etxea hartuko dute ardatz.

Egitaraua Otxandion abiatuko dute, errementarien inguruko erakusketa batez. XIX. mendeko etxebizitza bateko logela eta sukalde tipikoa daude erakusketa horretan ikusgai. Altxariak Durangaldekoak dira jatorriz. Gainera, bihar, Asier Astigarragak XIX. mendeko Otxandioko bizimodua hitzaldia eskainiko du udaletxean.

Datorren asteburuan, urriaren 11n, Alberto Santanak eta Dolores del Montese Zaldibar-

ko etxeari buruz jardungo dute. Udaletxean, berriz, baserriari eta euskal etxegintza herrikoia-ri buruzko erakusketa izango da ikusgai.

Garain, RTVEko *Vivir cada día* programak 1980an Milikua-Atutxatarren etxean grabatutako *El caserío vasco* atala proiektatuko dute urriaren 26an. Baserriaren jabe den Lazaro Milikuak aurkeztuko du grabazioa. Bestetik, *Dorretxetik baserri-jauregira: etxebizitza gizarte-mailaren ikur* bisita gidatua ere antolatuko dute Berrizen eta Garain. Gainera, Berrizen, Jon Ander Ramosek familia etxeen bilakaera hartuko du hizpide urriaren 25ean.

Belen Bengoetxea historialariak Mañariaren historia azal-



Urkizu-Tola jauregia bisitatuko dute Elorrion.

duko du bere etxebizitzaren bidez, bisita gidatua, urriaren 18an.

Elorrion, urriaren 18an eta 25ean, etxebizitza hiritarraren historia errepasatuko dute, Arabio, Arespakotxaga, Otsa, Olazabal eta Urkizu-Tola eraikinak bisitatuta. Urriaren 25ean, Iñaki García Caminok Argiñetako nekropoliaren inguruan bertan egindako indusketen berri emango du. Urriaren 29an, Bilboko Arkeologia Museoa-

indusketetan berreskuratutako materialak ikusiko dituzte.

Iurretako egitarauari dago-kionez, Euskal Herriko sukalde eta mahai gaineko zeramika ontzien inguruan jardungo du Blanca Gómez de Segurak, urriaren 19an. 25ean, oster, *Baserria: Euskal gizartearen ardatza* bisita gidatua abiatuko dute Oromiñon. Informazio gehiagorako: 688 613 537 eta [ejardunaldiak@gmail.com](mailto:ejardunaldiak@gmail.com).

## Agente zibikoak lanean dabiltza Berrizen eta Zaldibarren

**DURANGALDEA M.O.**

Eguaztenetik beharrean dabiltza Berrizko eta Zaldibarko agente zibikoak. Durangaldeko Enplegu Planari esker, herri bakoitzean pertsona bana kontratatuko dute sei hilera. Goizez eta arratsaldean dabiltza lanean, eta batez ere herritarrei arauak gogoraraztea izango da euren funtzioa. Besteak beste, txakurren gorotzak batu eta zaborrak uzteko orduak errespetatu ditzatela izango dira herritarrei emango dizkieten jarraibideetako batzuk.

Horretaz gainera, herriko beste zenbait arlotan ere lagunduko dute. Esaterako, eskola irteeretan trafikoa kontrolatzen ibiliko dira. Gainera, herrian apurtuta edo egoera txarrean ikusten dituzten baliabideez informatuko dute udala; farolez eta baldosez, adibidez.

## ‘Euskaraz bizi nahi dut’ lasterketak domekan

Berrizen eta Zornotzan egingo dute aldarrikapena



Zornotzan iaz egindako lasterketaren irudi bat. Nañon Zornotzan Euskaraz.

**DURANGALDEA A. Ugalde**

Berriztar eta zornotzar ugari batuko dira domeka goizean, arineketan egin, eta euskaraz bizi gura dutela aldarrikatzeko. Euskal Herriko hainbat herritan egingo dituzte herri lasterketak, Kontseiluaren kanpainagaz bat egiteko.

Berrizen, 10:45etik 11:15era egongo da aukera lasterketan izena emateko, Olakueta plazan. Olakuetatik trikitilarietara kalejira egingo dute Berrizburura, eta han hasiko dute lasterketa, 11:30ean. Handik plazara joango dira arineketan, eta gero luntxa eta oparien zozketa egingo dute.

Zornotzan, 11:00etan ipini dute hitzordua, Zubiondo plazan, izena emateko. 12:00etan hasiko dira korrika, hiru kategoriatan banatuta: 6 urtetik beherako umeek 200 metroko ibilbidea egingo dute; 7 eta 17 urteko gazteek kilometro batekoa; eta helduentzako 5 kilometroko ibilbidea prestatu dute. Amaieran, sari banaketa egingo dute, eta talde argazkia aterako dute.

## Zahartzaro aktiboa bultzatzea eskatu dute

Adinekoek euren eguna ospatu zuten eguaztenean

**DURANGALDEA M.O.**

Adineko Pertsonen Nazioarteko Eguna ospatu zuten eguaztenean, Amankomunazgoak eta udalek antolatuta. Jubilatuen elkarteek hainbat ekintza antolatu zituzten. Goizean, adibidez, Durangon batu ziren ibilaldi

bat egiteko, eta Tabiran amaitu zuten, jai giroan. Bertan, eguneko manifestua irakurri zuten elkarteetako ordezkari bik. Erakundeei zahartzaro aktiboa sustatzeko eskatu zieten, eta, horretarako, partaidetza eta integrazioa erabili dezatela.



Nagusiak, ibilbidearen ostean, Tabiran.

**clínicadental hortzklinika**  
b. unamunzaga e. etxebarria

RPS: 145-13

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK



Goizeko 08:00etatik gaueko 21:00etara ZABALIK

muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango  
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - [uecdental@gmail.com](mailto:uecdental@gmail.com)



Eraikuntzarako materiala

**MACOBER**

Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ  
Tel.: 946 827 890 [macober@movistar.es](mailto:macober@movistar.es)



## Ogenbarrenan hoditeria aldatu, eta eremu publikoa berrantolatuko dute

Lanak astelehenean hasi zituzten, eta fase bitan egingo dira; lehenengoan, ur lohien hoditeria aldatu, espaloiak zabaldu, eta kale-argiak aldatuko dituzte



Udal ordezkariak eta arkitektoa azalpenak ematen, Ogenbarrena auzoan.

**ZORNOTZA** Joseba Derteano Ogenbarrena auzoko espazio publikoa berrantolatuko eta lur azpiko azpiegiturak berriztatuko lanak hasi zituzten astelehenean, 300.000 euroko inbertsioagaz. Lanak fase bitan egingo dituzte, bizilagunei ahalik kalterik gutxien eragiteko.

Lehenengoak Arrieta Jaio eta Unamuno kaleei eragingo die batez ere, eta urtea amaitu aurretik lanik gehienak amaituta egotea espero dutela adierazi zuen David Latxaga alkateak. Espazioaren berrantolaketa berria egituratzeko orduan, oinezkoen erosotasuna hartu dute oinarri. Espaloiak zabaldu egingo dituzte, eta, horren ondorioz, autoen aparkalekuak berrantolatu egingo dira. Esaterako, Arrieta

Jaion (Aramotz kalerantz begira) ezkerreko aparkalekuak kendu egingo dituzte, eta esku-makoak berregituratu. Lehen fasean sei aparkaleku galduko dituzte, baina, bigarrenaren ostean, ia denak berreskuratuko dituzte.

Lan horiekin batera, eraikinei josita dauden kale-argi guztiak kendu, eta berriak ipiniko dituzte, baina lurrean.

Beste aldaketa bat zaborrei dagokie: Landeta paretik kendu, eta Gudari kalean aurrerago eramango dituzte. Erabaki hori hartu dute zaborrak parke ondotik aldentzeko. Era berean, Arrieta Jaion daudenak ere kendu egingo dituzte, zaborrak gunek bakar batean eta kanpoaldean pilatzeko.

### Ur hoditeriak banatuta

Azpiegiturari dagokienez, bizilagunak sarritan kexatu izan dira usain txarra dela-eta, beraz, orain arte hoditeria bakarrean zihoazen euri urak eta ur fekalak banatu egingo dituzte: hodi banatan joango dira.

### SEI HANKAKO MAHAIA

**DANI MAEZTU**

Aralar



### Udaletxearen zorra, 7,9 milioi

Durangoko udal gobernuak, EAJren eskuetan, nahiago luke eztabaida hau alderdien arteko lehia dialektikoan geratzeko. Liskarra argudioetan izan dezakegu, komunikabideen bitartez. Baina herritarrek ez dute horrelakorik merezi.

Kontua da EH Bilduk uste duela udalak zor itzela pilatu duela, durangarron etorkizuna arrazoi eta eraginkortasunik gabe hipotekatuta. Eta hori uste izateko udaleko teknikariek egin dako txosten jakin bat dugu. Zorra, zehazki, 7.900.000 eurokoa da. EAJk, aldiz, kontrakoa dio, hau da, udalaren diru kutxa ondo dagoela, zorrik ez dagoela.

Hortik aurrera, eskertuko genuke gure ustea pikutara bidaliko baligu EAJk, eta durangar guztion udala (bai, durangar guztion) ekonomikoki ondo balego. Albiste ona litzateke. Eta nola uxatuko genuke burutik kezka hori? Erraz. Udal taldeak jardunaldi bat antolatu dezake, goiz batean herritarrekin informazioa trukatzeko. Ez EH Bilduk eskatzen duelako; baizik eta herritarrek behar dutelako eta euren eskubidea delako. Hori da politikagintzan egin behar den bidea: herritarrek herriaren norabidearen parte egin. Baina burokratei nekez sartuko zaie buruan ideia hori.

Jardunaldi bat eginez gero, EH Bilduren argudioa pikutara joango litzateke eta EAJren tesia gailenduko litzateke. Guztia onura jeltzaleentzat. Zeri beldurra?

## Barloworld enpresak 71 langile kaleratuko ditu

Zornotzako lantegiak ezezkua eman arren, gehiengoz onartu dute akordioa zuzendaritzagaz

**ZORNOTZA** J.D.

Barloworld Finanza enpresako zuzendaritzak eta langileek akordioa sinatu dute. Akordio horren arabera, 71 langile kaleratuko dituzte, eta ez hasieran proposatutako 177. Era berean, “68 jubilazio egongo dira eta hainbat urtean epeka gauzatuko dira”, CCOO sindikatuko Unai Marzanaren esanetan.

Oraindik ez dakite Zornotzan zer ondorio izango duen akordioak. Zazpi kaleratze Zornotzako lantegirako daude aurreikusita, eta beste hiru Zornotzako lantegiak Logroñon (Espainia) eta Iruñean dituen ordezkarietarako. Aste honetan borondatezko kaleratzeak jakinarazteko epea ireki dute.

Datorren astean jakingo dute zehazki zenbat kaleratze eta jubilazio egongo diren Zornotzan.

Barikuan egin zituzten bozketak, enpresak Espainia osoan dituen lantegietan, eta gehienak akordioa onartzearen alde bozkatu zuen. Ondorioz, astelehenean greba egin eta langile guztiak enpresaren Madrilgo eraikin zentralean batzeko asmoa bertan behera geratu zen. Estatuan hiru lantegik bakarrik eman zuten ezezko botoa, eta tartean Zornotzako dago (38 ezezko eta 20 baiezkotako); Malagako eta Coruñako dira beste biak. Erabakiagaz ez daudela ados, baina “gehiengoak dioena onartu” behar izan dutela adierazi du Marzanak.

## Begoña Lasuen da EAJko zinegotzi berria

Iaz hil zen Isidoro Garmendia ordezkatu du; uztailakoa izan zuen bere lehen udalbatzarra

**OTXANDIO** J.D.

EAJk ordezkari bi ditu berriro ere Otxandioko udalbatzarrean. 2013ko apirilean Isidoro Garmendia hil zenetik, bere ordezkaria bilatzen aritu dira, eta azkenean aurkitu dute: Begoña Lasuen 44 urteko otxandiarrak beteko du aurrerantzean Garmendiak utzitako hutsunea.

Urtebete baino gehiagoan EAJk ordezkari bakarra izan du udalbatzarrean: Javier Garate. Hauteskundetara aurkeztutako zerrendan aurreneko postuetan zeudenek ez dute kargua hartu gura izan hainbat arrazoiengatik, eta, azkenean, zerrendan seigarren zegoen Lasuenek eman du baiezkotako, jeltzaleen esanetan.

Udalbatzarrean ez ezik, Zerbiztu Batzordeko kidea ere izango da aurrerantzean. Apurka herriko errealitatea ezagutzen ari dela dio: “Otxandioko herri-gunearen zein auzoaren alde lan egin eta laguntzea dut helburu”, dio.



**urtiaga**  
Proiektu eta Erreformat, S.L.  
Gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZI, BEROGAILU, AZULEJU, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOI ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

Solaguren kalea, 3 · Tel.: 946 814 474 · Faxa: 946 215 374  
E-maila: urtiaga@urtiaga.info · MATIENA-ABADIÑO



**HEKi**  
HERRI KIROL KLUBA

- 656 782 552 -

heki.iurreta@gmail.com

**Umentzako eta nagusientzako erakustaldiak eta antolaketak**



# Lan-istripurik berriro ez gertatzeko eskaria, heriotzaren saminagaz batera

Gazte bat hil da Metal Smeltingen, martitzen gauean makinak harrapatuta



Eguaztenean manifestazioa egin zuten hildako beharginaren lankideek eta lagunek.

**ELORRIO** A.U. / M.O.  
Berriro gertatu da. Metal Smelting enpresan –lehengo San Eloy galdategia– bizibidea ateratzen zebilela, bizia galdu zuen Endika Ruano 30 urteko gazte elorriarrak. Makinak harrapatu zuen, eta ezin izan zuten ezer egin gaztea salbatzeko. Albisteak samina eta protestak eragin ditu herrian, eta mezu bat zabaltu dute kaleetan: lan istripurik berriro ez dadila gertatu.

Lankideek eta lagunek deituta, mobilizazioa egin zuten eguaztenean. *Betiko gure bihotzean. Lan istripu gehiagorik ez leloa zeramaten pankarta batean, eta prekarietatea hiltzailea* beste batean. Gainera, Ruano-ren argazki batek zabaltu zuen

bidea. Enpresan hasi eta plazan amaitu zen manifestazioa, eta bidean geldialdia egin zuten, gaztearen kuadrillak daukan elkartean.

LAB sindikatuaren ustez, istripua saihestu zitekeen. Baina “enpresan bideragarritasun ekonomikoari lehentasuna” eman diotela kritikatu du: “Garrantzitsuena ekoizpen jardue-  
ra ahalik eta merkeen egitea denean, eta ez direnean prebentziorako planifikazioak egiten, ezin da esan horrelako lan-istripuak aurretik sumatu ezin diren gertaerak direnik”. CCOO-k ere bat egin zuen protestagaz, eta Osalan eta lan ikuskaritzari lan-istripuaren arrazoiak ongi aztertu ditzaizkien eskatu zion.

Bestalde, udalak dolu eguna deitu zuen atzoko, adierazpen instituzional baten bidez. Langileen protesta babestu, eta hausnarketa zabaltu zuten ordezkariak: “Gure gizarte garatu honetan, ditugun aurrerapen teknologiko guztiekin, honelako gertaerak onartezinak dira, eta beharrezko neurriak hartu behar dira berriro gerta ez daitezen. Horregatik, arazo sozial handi baten aurrean gaude”. Gertatutakoa ikertzeko behar diren bitartekoak ipiniko dituztela adierazi zuten, eta herriko enpresei segurtasunerako arautegia betetzeko deia egin zieten.

Protestak ez dira amaitu. Ezker abertzaleak manifestaziora deitu du biharko, 18:00etan.

## Ibarrako zubia eta errepidearen urbanizazioa 2015erako prest

**ELORRIO** Jone Guenetxea  
Ibarra eta San Pio kaleak lotzeko eraiki beharreko errepidearen eta zubiaren lanetan aurreikuspenak betetzen ari direla jakinarazi zuen martitzenean Ana Otañui Elorrioko alkateak, udal teknikariekin obrara egindako bisitan. Uztailaren amaieran ekin zieten lanei, eta 2015eko martxoan amaitzea aurreikusten dutela azaldu zuen Otañuik. Herriko mugikortasunari dagokionez, Elorriorentzat proiektu “estrategikoa” dela azpimarratu zuen alkateak. Azpiegitura honek 665.130 euroko kostua izango du.

### Zubiaren eraikuntza

Udalerritik irtengo den trafikoa jasoko duen, eta San Pio kaletik egingo den sarrera noranzko bakarrekoa izateko, zubia eraikiko dute. Horrela, Durango aldetik Elorriora sartzeko biribilguneak, gasolindegien ondoan dagoenak, hiru garren irteera izango du ezkerrean, eta San Pio eta Ibarra kaleak lotuko ditu. Zubiaren galtzadak bi errail izango dituela azaldu dute. Bi espaloiez gainera, bizikletan ibiltzeko 2,40 metroko erraila izango du. Zumelegi erreka-aren gaineko lotura eraikitzeaz batera, San Pio kalea oinezkoentzat egokituko dutela aurreratu dute udal arduradunek.

## > DURANGALDEA ASTEON

### Autobus linearen gaineko eztabaida

**DURANGO** Joan zen martitzenean, Durangon egin zen udalbatzarrean Bilduk eta Aralarrek Durango-Gasteiz autobus linearen gaia Euskadiko Garraio Agintaritzara eramateko eskatu zuten mozio batean. Eztabaidan erabiltzaileak egoitea eskatu zuten. Aralar, Bildu, EAJ eta PSE alderdien aldeko botoekin onartu zen mozioa.

### Jolasgunean zoru berria ipini dute

**DURANGO** Ezkurdiko jolasgunean gomazko zoru berria ipini dute, eta zuhaitz oinak konpondu dituzte 7.900 eurogaz. Eskola Agenda 21ean onartutako jasagarritasun irizpideak jarraituta egin dira konponketak. Aitziber Irigoras alkatearen arabera, “herriko eskolen parte-hartze zuzena funtsezkoa izan da ekimenean”.

### Frantseses berba egiteko aukera

**DURANGO** JAPPO elkarte senegaldarrak orain bost urte ipini zuen martxan ekimena. Harrezkero, Durangoko Udal Liburutegian frantsesa praktikatzeko aukera eskaintzen dute. Helburua frantsesa praktikatzeko gune bat eskaintzea da. Talde irekia da, eta barikuro batzen da, 18:00etatik 19:30era. Gaur da lehen bilera.

## Iritzia

### Metal Smelting enpresako langileen adierazpena

- Lehenik eta behin, Endika Ruano Metal Smelting enpresako gure lankidearen heriotzaren aurrean, gure besarkadarik beroena helarazi nahi diegu Endikaren senide eta lagun guztiei.
- Argi esan nahi dugu Endikaren heriotza saihestea posible zela, prebentzioari benetako garrantzia eta lehentasuna emanez gero.
- Endikaren heriotzak berriro ere gauza bat utzi digu argi: prebentzioa da gure bizitza babesteko modu bakarra.
- Horrenbestez, Metal Smelting enpresako langileok Endika gure lankidearen heriotza gaitzetsi, eta horrelakorik berriro gertatu ez dadin behar besteko neurriak hartzea exijitzen dugu.

Besarkadarik handiena, berriro ere, Endikaren familiari eta lagunei.

Jose Mari Bernalte, Metal Smelting enpresako langileen izenean.



**astekaria@anboto.org**  
asteartea 17:00ak arteko epea

### Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta  
• Izen-abizenak • telefona • helbidea  
• Nortasun Agiriaren zenbakia

### -DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



**Berbaz****Iñaki Peña** | Medikua | Burgos, 1971

## “Dokumentala bizitzari buruzkoa da, dolua bizidunok egiten dugulako”

‘Aulki hutsak’ dokumentalaren egilea da Iñaki Peña; datorren astelehenean ikusgai egongo da Elorrion

**> BERBAZ** Jone Guenetxea  
Maite duzun pertsona bat hiltzerakoan zer? Galdera horri erantzuna bilatzen saiatzea da ‘Aulki hutsak’ dokumentalaren asmoa. Hainbat lagunen bizipenak ardatz hartzen dituen ikus-entzunezkoak dolua du berbagai. Iñaki Peña medikuak bultzatutako proiektua zaldibarren izan zen atzo ikusgai. Urriaren 6an, berriz, Elorrioko Arriola antzokian ikusi ahal da, Cine Invisible jardunaldiaren barruan.

**Zelan jarri zenuen proiektua martxan?**

Estreinaldia Elgetan izan zen, joan zen abenduan. Proiektu pertsonala izan da, bizipen pertsonal eta profesionaletatik abiatuta. Bonbilatxo piztu zitzaidan. Protagonistak jartzeko giza ondarea banuen, baina talde teknikorik ez. Ni medikua naiz, eta ez dut horrelakorik ikasi. Beraz, gidoia idatzi nuen. Ondoren, talde teknikoa Artemanegaz osatu nuen.

**Ikus-entzunezkoan beraien bizipenak kontatzen dituzten pertsonen testigantzak azaltzen dira. Zelan aukeratu zenituen?**

Nire ibilbide profesionalen topatutako pertsonak dira, eta, kasu ezberdinak direnez, horrek proiektua aberasten zuela pentsatu nuen. Proposamena egin nien, eta baietza eman zidaten, eta hasieratik izan zuten oso jarriera irekia.

**Dokumental honetan heriotzari buruz berba egiten duzue. Heriotza tabua da gure gizartean?**

Erabat. Gizartearen aurrerapenak hainbat gai ezkututzen ditu, eta hauxe da horietako bat. Aurrerapen honegaz ideia faltsu batzuk sortzen dira: esate baterako, uste dugu dena sendatu daitekeela, edo gazteak eta politikak izango garela betiko. Horixe da gure gizartea. Alde ez hain polit horiek ikusi gura ez dituen gizarte batean bizi gara. Dena

dela, nik beti aipatzen dut dokumental hau heriotzari buruzkoa baino, bizitzari buruzkoa dela, argi eta garbi. Heriotza hor dago, aipatzen dugu, eta abiapuntua da. Baina bizitzari buruzkoa da gehien bat, dolua bizidunok egiten dugulako. Islatzen duguna bizitza bera da. Zelan egokitzen garen egoera hauetara. Zein erreakzio izaten dugun, bizidunok lotuta betiere.

**“Maite dugun hori hiltzean zer?”. Galdera horri erantzutea posible da?**

Erantzunak bilatzen ditugu. Batzuetan gehiago kostatu daiteke. Tuneletik ateratzeari buruz hitz egiten dugu guk.

**Hainbat kultur etxetan dokumentala proiektatu, eta berbalak eman duzu. Nabaritu duzu jendeak gai honi buruz hitz egiteko beharra duela? Hau da, dokumentala aitzakia izan daiteke bakoitzak bere barruan duena ateratzeko?**

Pertsona askok aprobetxatzen dute solasaldia beraien bizipen pertsonalak kontatzeko, eta hori izugarria da. Batzuek esaten dute ez daudela ohituta publikoan berba egitera, eta bakarka etor-

**“Gizartearen aurrerapenak hainbat gai ezkututzen ditu”**

tzen dira. Batzuentzat itzelezko katarsia da, eta hor ikusten dute momentua laguntzeko elkarre edo taldeak bilatzeko. Pozgarria da. Ni neu hortik pasatuta nago, seme moduan, eta denoi gustatzen zaigu beste batzuei laguntzea. Nolabait kate bati jarraitzea da. Ekainera arte 25 proiektzio egin ditugu herriz herri.

**Medikua zaren aldetik, profesionalen artean gai hauek**

**egoki lantzen direla uste duzu? Gaixoezin eta senitartekoezin hartu-eman duzue.**

Oso arlo gutxitan lantzen da. Guk lantzen dugun medikuntzan asko kostatzen da. Zainketa aringarrietako esparruak daude, psikologia arlokoak, adibidez. Zorte kontua izaten da, eta sentsibilizatuta dagoen pertsona bat tokatu ahal zaizu. Baina nik esango nuke gehienek beldur hori partekatzen dutela. Profesionalen artean hori oso errotuta dago.

**Dokumentala profesionalen artean ere proiektatu duzue.**

Abenduan, estreinatu genuen, bigarren emanaldia Euskadiko zainketa aringarri buruzko jardunaldian izan zen. Urtero egiten dugu, eta iaz Bilbon eman genuen. Gainera, osasuna euskalduntzeko urteko jardunaldian atal bat heriotzari buruzkoa izan zen, eta han ere ikusgai izan genuen. Hemendik aurrera gehiagotan egongo gara foro espezializatuetan.

**Dokumentalak zabalkunde handia izan du. Non izango zarete aurrerantzean?**

Ez dugu baliabiderik alde guztietara joateko, baina hainbat lekutan erakutsi dugu dokumentala. Donostian, udaberrian, Giza Eskubideen Zinemaldian egon ginen, eta Lekeitioko Euskal Zine eta Bideo Bileran ere izena eman dugu. Lan hau euskaraz egiteko apustua egin dugu, azpiztituluekin. Esparru erdaldunetan ere harrera ona izan duela esan dezakegu. Zinebin ere izena eman dugu. Atzo, adibidez, Zaldibarren izan ginen, eta, urriaren 6an, Elorrioko Arriolan egongo gara. Eta Durangoko Azokako Irudienean ere egongo gara.

**Proiektuak izan duen ibilbidea eta harrera ikusi ostean, zer sentsazio gelditzen zaizu?**

Merezi izan du. Topikoa ematen duen arren, horrelako proiektu batek lan handia ematen du. Gainera, ekonomiari dagokionez, oso garai latzak bizi ditugu. Pertsona amateurrek egin dugu lan Arteman enpresa txikiagaz, eta ikusi dugu helburuak betetzen ari garela. Udalerrri handietako liburutegietan ikusgai egongo da dokumentala, esaterako Durangon, Abadiñon eta Berrizen, eta hori pozgarria da. Aurrez aurreko harremana ere oso aberasgarria izan da. Izan ere, jendearen bihotzera heltzea gauza handia da.



# JAIIAK!

2014ko URRIA | DURANGO

URRIAREN 10etik 19ra



Ondo pasa jaietan!

Montevideo, 4  
DURANGO - Bizkaia  
Tel.: 946 570 166

Jose Antonio Agirre, 2  
DURANGO - Bizkaia  
Tel.: 946 817 974





# DURANGOKO

## URRIAK 3, BARIKUA

**20:00** 'Adiós, Chéjov' PACO OBREGONen antzezlanaren estreinaldia, San Agustin kulturgunean. Sarrera: 10 euro (7,50 euro bazkideek).

## URRIAK 4, ZAPATUA

**17:00** Estatuko Ohorezko B Mailako errugbi partidua, Arripausuetan: DURANGO RUGBY TALDEA - BERA-BERA RUGBY TALDEA.

**17:00-19:00** Durangoko II. Atletismo Eguna. Klub, elkarte eta kuadrillen arteko errelebo lasterketa eta txikientzako lasterketak, Alde Zaharrea. E-maila: 'durangokiroltaldea@gmail.com' (euria bada, Merkatu plazan).

**18:00** XXXI. San Fausto Zesta-punta Txapelketa, Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan.

**20:00** PACO OBREGONen 'Adiós, Chéjov' antzezlan, San Agustin kulturgunean. Sarrera: 10 euro (7,50 euro bazkideek).

## URRIAK 5, DOMEKA

**08:00** XLVI. Durangaldeko Gailurrak.

**10:00** Durangoko IX. Duatloi Herrikoa. Irteera, Santa Ana plazan.

**18:00** 'Sialuk, hartz txikiaren bidaia', EN LA LONA taldearen haurrentzako ikuskizuna, San Agustin kulturgunean. Sarrera: 4 euro (3 euro bazkideek).

## URRIAK 6, ASTELEHENA

**Mus, tute, briska, igel, billar eta ping-pong txapelketen hasiera**, nagusientzat. Izena ematea doan izango da urriaren 6ra arte, adinekoentzako udal egoitzako kafetegian. Plazak zozketa bidez banatuko dira. Laguntzaileak: Cafés Baqué eta BBK.

## URRIAK 10, BARIKUA TXUPINAZOA ETA JAIEN HASIERA

**II. Argazki Lehiaketaren hasiera.** Argazkiak aurkezteko epea urriaren 20an amaituko da, 24:00etan, 'f.stop. durango@gmail.com' e-mailera bidalita. Antolatzailea: Durangoko F-Stop argazki taldea. 'www.f-stopdurango.org'.

**17:30** 'Txantxarien jaiak' haurrentzako ikuskizuna, Ezkurdin.

**18:00** Ekialdeko dantzen erakustaldia KHUZAYMA elkarteagaz, Andra Marian.

**19:00** Erraldoiak eta buruhandiak Alde Zaharretik, Ezkurdin hasita.

**19:00** Patxikotxuri ongiatorria, San Fausto auzoan. Ondoren, kalejira udaletxeko plazaraino SUGARRI FANFARRIagaz.

**19:30** XXIX. Cafés Baqué Esku Pilota Txapelketako finala, Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan.

**20:00** Txupinazoa eta jaietako pregoi ofiziala. TABIRA MUSIKA BANDAK jaietako pregoia irakurriko du, eta txupinazoa botako du. Gora sanfaustoak!

**20:30** Kalejira udaletxetik txosnagunera.

**20:30** RAMÓN BURGOS Y LOS CHARROS mariatxiak, Andra Marian.

**21:00** Kalejira ORKRESTA elektrotxaragagaz, Alde Zaharrea.

**21:00** Txupinazoa txosnagunera, EUSKALGINTZAREN eskutik.

**22:00** Kontzertuak Ezkurdin: KAUTA eta URTZ (euria bada, Kafe Antzokian).

**22:00** Kontzertuak txosnagunera: DINERO, MINOR EMPIRES eta LA M.O.D.A (La maravillosa orquesta del alcohol).

## URRIAK 11, ZAPATUA UMEEN EGUNA

**07:00** Diana txistulariekin.

**07:30** Zezenak Dira, dultzaineroekin.

**08:00** Perretxiko bilketa. Irteera, Ezkurdin. Antolatzailea: Errotari elkarte mikologikoa.

**10:00-17:00** Promoziozko zaldi salto lehiaketa, Zuhatzola parkean (euria bada, Iurretako Zelai Alai hipikan).

**10:30** Esku pilota jaialdia, San Fausto pilotalekuan. Mailak: haurtxoak, haurrak, gazteak eta seniorrak.

**11:00-13:00** Xake txapelketa umeentzat, Andra Marian.

**11:00-13:00** Haurrentzako tailerrak, Ezkurdin.

**11:00-14:00** Haur parkea, Ezkurdin (euria bada, San Antonio-Sta. Rita ikastetxeko patioan).

**11:30** Kalejira txistulariekin.

**11:30** Txokolatada, Andra Marian.

**12:00** Erraldoi eta buruhandiak, Ezkurditik hasita, Alde Zaharrea zehar.

**12:30** Txahal erretzea, Andra Marian.

**12:30** Gazte Eguneako txupinazoa eta, ondoren, triki-poteoa.

**13:00** Trikitia, Alde Zaharrea, TXIRI-TXIRI taldeagaz.

**13:00** Txupinazoa txikia eta pregoia, udaletxeko balkoitik. Ondoren, ohorezko aurrekua. Txupinero txikia: MUGARRA TRIATLOI TALDEA.

**15:00** Gazte bazkaria eta jolasak, txosnagunera. Antolatzailea: Txosna Batzordea.

**16:00** Lurraldeko Lehen Mailako futbol partidua, Arripausuetan: EZKURDI KIROL TALDEA - PEÑA.

**16:00-19:00** Igeriketa txapelketa herrikoa, Landako kiroldegian. Izen-ematea: urriaren 8an eta 9an, 18:00etatik 20:00etara, Landako 1 kiroldegian. Euro 2. Kamiseta eta domina parte-hartzaileentzat. 10 urteik aurrera. Informazio gehiago: 'info@tabirait.com' eta 'www.tabirait.com'.

**16:30-19:30** Haur parkea, Ezkurdin (euria bada, San Antonio-Sta. Rita ikastetxeko patioan).

**17:00** Euskal Herriko errektoreak Bergarako Zezenak ganadutegiagaz, zezen plazan. Prezio herrikoiak.

**17:30** Arte martzialen erakusketa eta kalejira, Alde Zaharrea.

**17:30** Olinpiadak, txosnetan.

**18:00** 'Sardina freskue' haurrentzako berbena EIDABE taldeagaz, Andra Marian.

**19:00** LA TAL konpainiaren 'Fotografiers' ikuskizun ibiltaria, udaletxeko plazaatik.

**19:00** Lehen Mailako gizonezkoen saskibalo partidua, Landako kiroldegian: TABIRAKO BAQUÉ - ZARAUZ.

**19:30** Senegalgo erritmoak M'LOMP elkartearen kalejiragaz, udaletxeko plazaatik hasita.

**20:00** Elektrotxaranga txosnetatik.

**21:00** Zezensuzkoa, Ezkurdin.

**21:00-00:00** Indarkeria sexistarik gabeko txokoa, Santa Ana plazan: 'Informatu eta jardun'.

**22:00** Kalejira SUGARRI FANFARRIagaz, San Fausto auzoan.

**22:30** THE MUSIC SHOW orkestra, Ezkurdin.

**23:00** Kontzertuak, txosnetan: PIXONTXIS, IHESKIDE eta NIÑA COYOTE ETA CHICO TORNADO.

**02:00** Gazte jaiak, txosnetan.

## URRIAK 12, DOMEKA

**07:00** Diana txistulariekin.

**07:30** Zezenak Dira, dultzaineroekin.

**10:00-13:00** XLI. San Fausto Marrazki Lehiaketa, San Fausto auzoan. Izen-ematea 10:00etatik 12:00etara.

**10:00** XXII. Marmitako Txapelketa, Landako Gunean. Izena ematea eta informazioa Pinondo Etxean, irailaren 18tik 29ra. Zozketa: irailaren 30ean.

**11:00** XV. Mikologia Erakusketa, XIV. Argazki Mikologikoen Lehiaketa eta XIV. Perretxikoak Sailkatzeko Lehiaketa (16 urteik beherakoentzat), Merkatu plazan.

**11:00-14:00** TOC DE FUSTA jolasak familia osoarentzat, Ezkurdin (euria bada, San Antonio-Sta. Rita patioan).

**11:30** Kalejira txistulariekin.

**11:45** TABIRA MUSIKA BANDAK emanaldia eskainiko du, J.M. Barandiaran egoitzan. Ondoren, kalejira.

**11:45** Antón Arietari omenaldia, 'Antón Arieta. Orgullo de un pueblo' argazki erakusketa eta ATHLETIC CLUB - CULTURAL DURANGO beterranoen futbol partidua, Tabira futbol zelaian. Sarrera Durangoko oinarri futbolarentzat izango da: 5 euro (3 euro 14 urteik beherakoek).

**12:00-18:00** San Fausto graffiti erakusketa, Merkatu plazaren inguruan.

**12:00** Lehen Mailako emakumezkoen saskibalo partidua, Landako kiroldegian: TABIRAKO BAQUÉ - ARASKI.

**12:00** XXXI. San Fausto Zesta-punta Txapelketako finalerdia, Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan.

**12:30** XIV. Durango Hiria Margo Lehiaketaren sari banaketa, Ezkurdiko udal erakusketa aretoan.

**13:00** Kontzertua TABIRA MUSIKA BANDAgaz, Andra Marian.

**16:30** Musika emanaldia AKERBELTZegaz, Landako Gunean, marmitako lehiaketaren ondoren.

**17:00** 'Mendizaleak' haurrentzako ikuskizuna HIPO ETA TOMAX pailazoekin, Andra Marian (euria bada, Nevers ikastetxeko patioan).

**17:00** Herri probak, txosnetan.

**17:00** Lau ganadutegiren lehia zezen plazan: LEIZARRAN, MARQUÉS DE SAKA, BERGARAKO ZEZENAK eta MANZARBEITIA. Prezio herrikoiak.

**18:00** TORICOS DE LA NAVARRERIAren entzierro txikia, Santa Anan (euria bada, San Antonio-Sta. Rita ikastetxeko patioan).

**18:00** Kantu-jira udaletxeko plazaatik.

**18:30** Erromeria IZARGI taldeagaz, Ezkurdin (euria bada, Andra Marian).

**20:00** 'De mutuo desacuerdo', PENTACIÓN PRODUCCIONESen antzezlan TONI ACOSTAgaz eta IÑAKI MIRAMÓNegaz, San Agustin Kultur Gunean. Sarrera: 12 euro (9 euro bazkideek).

**22:00** Disko Dantza, San Fausto auzoan.



**AMALUR ASEGURUAK, S.L.**

amalur.aseguruak@agencia.axa.es  
www.amalur.agenciaaxa.es

**AXA DURANGO  
KURUTZIAGA**  
Kurutzia, 26 Durango  
946 816 022

**AXA ELORRIO**  
Berrio-Otxoa, 4  
Elorrio  
946 584 703

**alki**

**barne dekorazioa**

Mikeldi, 6 48200 Durango • 946 813 895  
alkiinteriores@hotmail.com

**ERABERRITZE INTEGRALAK**  
Altzariak, sofak, papera,  
tapizeria, errezelak.  
Alfonbrak eta apaingarriak.



# JAIEN EGITARAUA

## URRIAK 13, ASTELEHENA SAN FAUSTO

**07:00** Diana txistulariekin.

**07:30** Zezenak Dira, dultzaineroekin.

**11:00-14:00** Txu-txu trena, jumping, eskalada-horma, tirolina eta eko-jolasak, musika eskolan (euria bada, Landako Gunean).

**11:00** Meza nagusia, San Fausto elizan.

**11:00** Paella txapelketa, txosnagunean. Sari banaketa 14:00etan.

**11:30** Kalejira txistulariekin.

**11:30** Umeentzako herri kirolak, Ezkurdin (euria bada, Landako Gunean).

**12:00** Paella txapelketaren hasiera, San Fausto auzoan. Oharra: nahi duten herritar guztiek parte hartu dezakete paella txapelketan. Parte-hartzaileek erabili behar dituzten tresna eta osagai guztiak ekarri beharko dituzte, arroza izan ezik, antolatzaileek banatuko dutelako. Izen-ematea: eguerdiko 12:00etatik aurrera, San Fausto auzoan.

**12:30** Txalaparta, ohorezko aurrekua eta artopil banaketa, udaletxeko plazan. Ondoren, DURANGOKO DANTZARIAK.

**14:00** Bazkaria pertsona nagusientzat, Landako Gunean, DUO TWISTER orkestrak giroa.

**16:00** Poneyak, San Fausto auzoan. (Zezen plazan. Sarrera doan).

**16:00-19:30** Haur parkea, Ezkurdin (euria bada, San Antonio-Sta. Rita ikastetxeko patioan).

**16:30-19:00** Txu-txu trena, Ezkurdin.

**17:00** Mañaria errekaen jaitsiera, Tabiratik hasita.

**17:30** Txokolatada eta haurrentzako jolasak, San Fauston.

**17:30** eta **18:30** Ipuin kontariak ingelesez, 3 eta 8 urte bitarteko umeentzat, Ezkurdin.

**17:30** Kuadrillen arteko 'grand prix'-a, zezen plazan. Jokoak behiagaz eta behirik gabe. Izen-ematea Pinondo Etxean, urriaren 9ra arte. Sarrera: 3 euro umeek eta kuadrillek, eta 5 euro helduek.

**18:00** WOMEN WITH FUTURE gospel abesbatzaren emanaldia, Andra Marian.

**19:00** Durangoko PRO-AM Zesta-punta Sari finalerdiak, Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan.

**19:30** 'Epa' a capella musika-antzerki ikuskizuna THE MODE QUARTET taldeagaz, Andra Marian.

## URRIAK 16, EGUENA

**19:00** 'Happy End', VAIVÉN PRODUCCIONES antzezlan euskaraz, San Agustin kulturgunean. Sarrera: 10 euro (bazkideek 7,50 euro).

## URRIAK 17, BARIKUA

**17:00** GURUTZE GORRIAREN ateak irekitzeko eguna, Ezkurdin. Simulazioa 19:00etan (euria bada, Landako Gunean).

**18:00** Tortilla txapelketa, txosnagunean. Sari banaketa 20:00etan.

**19:00** Durangoko PRO-AM Zesta-punta Sari finala, Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan.

**21:00-00:00** Indarkeria sexistarik gabeko txokoa, Santa Ana plazan: 'Informatu eta jardun'.

**21:30** 'Antes que lo prohíban', KAMANKOLAREN kontzertua, Ezkurdin (euria bada, Andra Marian).

**22:00** Kontzertuak, txosnetan: HAN, GLAUKOMA eta KASHBAD.

**22:30** Bertsolariak, San Agustin kulturgunean: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Igor Elortza, Beñat Gaztelumendi eta Alaia Martin. Gai-jartzailea: Unai Iturriaga. Sarrera doan.

## URRIAK 18, ZAPATUA MOZORRO EGUNA

**07:00** Diana txistulariekin.

**07:30** Zezenak Dira, dultzaineroekin.

**10:30-14:30** Xake txapelketa federatu gabekoentzat, Ezkurdiko aterpean. Izen-ematea txapelketa hasi baino ordu erdi lehenago.

**11:00** Nekazaritza azoka, Merkatu plazaren inguruan.

**11:00** Umeentzako moztarri tailerra, Andra Marian.

**11:00** 'Astronomia esku artean' tailerra, udaletxe aurreko plazan.

**11:30** Kalejira txistulariekin.

**11:30** Futbol partidua, Arripausuetan: CULTURAL DE DURANGO - OIARTZUN.

**12:00** VII. Patata Tortilla Txapelketa, Merkatu plazan. Mailak: 8-13 urte / 14-17 urte / 18 urtetik gorakoak. Izen-ematea eta informazioa Pinondo Etxean, urriaren 1etik 14ra. Plaza mugatuak.

**12:00** Kalejira DURANGOKO ORFEOIAGAZ Alde Zaharretik.

**12:00** Haurrentzako makillajea.

**13:00** Haurren moztarri desfilea eta sari banaketa, Andra Marian.

**15:00** Elkartasun bazkaria, txosnetan.

**17:00** Animazioa trikitiagaz, pertsona nagusien egoitzetatik.

**17:00** Futbola behiagaz. Kuadrillen arteko futbol partidua, eta, ondoren, bigantxak. Izen-ematea urriaren 9ra arte, Pinondo Etxean. Sarrerak: 3 euro umeek eta kuadrillek, eta 5 euro helduek.

**18:00** XXXI. San Fausto Zesta-punta Txapelketako finala, Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan.

**18:00** Gazteentzako jokoak, Ezkurdin (euria bada, merkatu plazan).

**18:30** Taldekako moztarri desfilea, Madalenatik Andra Mariraino. Bukaera sari zozketa.

Izen-ematea: urriaren 1etik 16ra Pinondo Etxean (euria bada, desfilea ez da egingo, eta Andra Marian elkartuko dira).

**18:30** Kalejira Alde Zaharretik SUGARRIGAZ. Madalenatik hasita.

**19:00** LA JODEDERA taldearen kontzertua, txosnagunean.

**20:00** DJ ENEKO, Andra Marian.

**21:00** Zezensuzkoa, Ezkurdin.

**21:00** Behaketa astronomikoa, Zuhatzola parkean; ondoren, suziarik eta txokolatada (euria bada, ez da egingo).

**21:30** Animazioa Alde Zaharretik GHANAKO TXARANGAGAZ.

**22:30** TAXXARA orkestra, Landako Gunean.

**23:00** Kontzertua, Ezkurdin: KRESALA (euria bada, Andra Marian).

**23:00** Kontzertua, txosnagunean: EUSKABARET eta LUHARTZ.

**00:00-03:00** Alkoholemia kontrolaren stand informatiboa, eta 'testing' programa-AI LAKET!! Txosnagunean.

## URRIAK 19, DOMEKA INGURUGIROAREN EGUNA

**07:00** Diana txistulariekin.

**07:30** Zezenak Dira, dultzaineroekin.

**09:00** XXV. San Fausto Calva Txapelketa, Muruetarren.

**10:00-14:00** Haur parkea, Ezkurdin (euria bada, San Antonio-Sta. Rita ikastetxeko patioan).

**11:30** Kalejira txistulariekin.

**11:30** Bizikletaren jai familia osoarentzat, bidegorritik martxa. Irteera Andra Marian. Bizikleta eta kaskoa eraman behar dira. Parte-hartzaileen artean sariak zozkatuko dira.

**12:00** III. Padel Txapelketaren finala, Landako kiroldegian.

**12:00** Poneyak eta zaldiak Landako parkean (euria bada, ez da egingo).

**12:00-14:00** Arku-tirorako gunea, Landako parkean (euria bada, Landako Gunean).

**12:30** Herri kirolak, Ezkurdin (euria bada, Landako Gunean).

**13:30** Bilbainadak LOS CINCO BILBAÍNOS taldeagaz, Andra Marian.

**16:00-19:30** KONDAIRA LUDOTEKA: mahai jokoak, Magic txapelketa eta Warhamer erakusketa, Ezkurdin. Txapelketarako izen-ematea: 16:00etatik 16:30era.

**16:00-19:00** 'Arte-kaleak' LA RESIDUAL taldearen haurrentzako tailerra, Ezkurdin (euria bada, Merkatu plazan).

**17:00** 'Konposterak' ZIRIKA ZIRKUSen haurrentzako ikuskizuna, Ezkurdin (euria bada, Nevers ikastetxean).

**18:00** Jotak LOS PAMPLONICAS taldeagaz, Andra Marian.

**18:00** Erromeria AIKO taldeagaz Kafe Antzokian.

**18:30** Kalejira SUGARRI FANFARRIAGAZ.

**19:30** Kalejira Patxikotxuri agur esateko, udaletxeko plazatik Landako skate pistaraino.

**20:00** Jaien bukaera, Landako skate pistan.

## URRIAK 25, ZAPATUA

**17:00** Estatuko Ohorezko B Mailako errugbi partidua, Arripausuetan: DURANGO RUGBY TALDEA - APAREJADORES BURGOS.

**20:00** XX. Txistu Kontzertua, Landako Gunean.

## URRIAK 26, DOMEKA

**Umeen 48. Euskal Jaia**

**12:00** Talde guztiak Merkatu plazan elkartuko dira, eta, ondoren, kalejira egingo dute.

**13:00** II. Argazki Txapelketaren sari banaketa, San Agustin kulturguneko sarreran.

**17:00** Alardea dantza taldeekin, Ezkurdin (euria bada, Merkatu plazan).



**Ana Camarero**  
Edertasunerako tratamenduak  
eta aholkularitza

URRIA - AZAROA  
**Fotodepilazioa**  
3 saio ordainduz gero,  
**1 dohainik**  
Prezioengatik galdetu

**altzariak**  
**gandarias**

Ermodo kalea, 15  
Arkotxa kalea, 13  
Tel.: 946 810 722  
48200 DURANGO  
[info@mueblesgandarias.com](mailto:info@mueblesgandarias.com)





## Durangoko Tabira Musika Bandako kideak | 2014ko sanfaustoetako txupineroak



Manuel Parada Feijó, Lide Etxebarria Molina, Leire Rodríguez Elgeta eta Josu Otxotorena Zabalza bandako kideak.

### “Oso sorpresa atsegina izan da txupinazoa bandak botatzeara”

Jaien hasierako pregoia Tabira Musika Bandak botako du, urriaren 10ean

**> MUSIKA** Itsaso Esteban  
Tabira Musika Bandan diharduten bi belaunalditako ordezkariak botako dute urriaren 10ean Durangoko San Fausto jaietako txupinazoa. Leire Rodríguez Elgeta eta Lide Etxebarria Molina 16 eta 14 urteko klarinetistek, eta 1954tik bandan diharduen 81 urteko Manuel Parada Feijó perkusionistak emango diete jaiei hasiera. Hiru txupineroekin eta Bandako presidentea eta tronboi-jotzailea den Josu Otxotorena Zabalzagaz egin dugu hitzordua. Landakon.

Zelan hartu duzue txupinazoa botatzeko proposamena?

**Josu Otxotorena:** Ez dugu sekula horretan pentsatu, eta oso sorpresa polita izan da. Pentsatzen jarrita, baina, logikoa ere bada herrian 130-140 urte daramatzan erakunde bat txupinazorako aintzat hartzea.

Jaietan zer parte-hartze edukiko du Bandak?

**J.O.:** Txupinazoaz gainera, jaietako ohiko emanaldia ere egingo dugu domekan. Adinekoen egoitzan joko dugu 11:45ean, eta Andra Mariko elizpean eskainiko dugu emanaldia, 13:00etan.

Leire eta Lide, zelan egin duzue bandarako bidea?

**Leire Rodríguez:** Musika eskolako gure irakasleak ere bandan jotzen du, eta berak proposatu zigun etortzea.

**J.O.:** Lorena Rodríguez Ahedo da bandan ere badabilen musika eskolako irakasle bakarra, eta beragaz dugu lotura.

Inportantea da musika eskolaren eta Tabira Musika Bandaren artean dagoen harreman hori?

**J.O.:** Bai, noski; izan ere, gure asmoa taldekideak musika eskolatik ekartzea da. Lehen musikiak beste modu batera etortzen

ziren. Gaur egun, aldiz, askok euren musika ikasketen osagarritzat ulertzen dute banda. Eta etorkizuna hori da, errelebo hori ziurtatzea.

**Manuel:** Galiziatik etortzean hemen harremanak egiteko modua izan zen banda?

**Manuel Parada:** Lan bila etorri nintzen Galiziatik Durangora. Ourenseko Albarellos de Monterrey herritik etorri nintzen, eta hemen ez nuen inor ezagutzen, eta, noski, Durango eta durangarrak ezagutzeko aukera izan zen.

Zergatik iraun duzu hainbeste urte bandan? Zer eman dizu?

**M.P.:** Askok alaitasuna batez ere, baina baita penaren bat ere.

Gazteek zer jasotzen duzue bandan parte hartzetik?

**L.R.:** Batetik, eskolan ikasitakoa praktikan ipintzeko modua, eta, bestetik, guk baino esperientzia

handiagoa daukan jendearen-gandik ikasteko aukera.

**Lide Etxebarria:** Partiturak azkarrago irakurtzen ere ikasi dugu, esaterako.

**J.O.:** Musikariarentzat oso interesgarria da, bestalde, hainbat zuzendarigaz lan egiteko aukera edukitzea. Azken hamar urteetan, esaterako, lau-bost zuzendari igaro dira Durangoko Tabira Bandatik, eta hori beti da aberasgarria musikariontzat. Zuzendari bakoitzak bere erara ulertzen du obra baten interpretazioa, eta gomendio interesgarriak ematen ditu. Askok ikasten da.

**L.R.:** Hainbat kontzertu eskaini behar izaten ditugunez, erronka

da guretzat, eta lan handia egiten dugu obrak prestatzeko.

**J.O.:** Egia da; izan ere, kontzertu bakoitzerako erreperitorio bat prestatzea gustatzen zaigu. Lehen, bandak beti zeuden prozesioekin, pasodobleekin eta zartzuekin lotuta. Baina gaur egun badago jendea denetari-ko partiturak –klasikoenak eta filmetako musikarenak, adibidez– bandako instrumentuekin jotzeko moldatzen dituenak. Guk, Queen taldearen kantak eta musika garaikidea ere jo izan dugu, esaterako. Jesus Egiuren konposizioa jotzea erronka izan zen guretzat, baina lortu genuen. Duela bi urte estreinatu genuen.

Zenbat kidek osatzen duzue gaur egun banda?

**J.O.:** 15-20 lagun inguru gara finkoak. Eta emanaldietarako talde-rik kanpoko jendea batzen zaigu.

Zer moduzko harrera egiten dizute durangarrek kalerik kale zabiltzatenean?

**J.O.:** Orokorrean oso ona. Kontzertuetan txalo asko jasotzen dugu. Saiakera egiten gabiltza, eta hein handi batean lortu dugu banda herrian ezaguna izatea. Are gehiago, maitatua ere bada.

Historia luzea du bandak.

**J.O.:** Bai, urte asko daramatza Tabira bandak. Badauzkagu, esaterako, 1.880. urteko bandaren argazkiak, Bartolome Ertzi-lla zuzendari zen garaioak.




Goienkaleko jaietan kalejira egin zuen Tabira Musika Bandak.



San Ignazio auzunea, 1 behea  
48200 Durango (BIZKAIA)  
Tel.: 946 216 540

durango@tiendascolorplus.com  
www.tiendascolorplus.com

### INPRIMAGAILUETAN ADITUAK



## 3D

**Digitalizazioa,  
materiala, inpresio  
lanak eta salmenta**

Era guztietako inprimagailuentzako  
kartutxo original eta bateragarriak

primitiba • kinielak • egunkariak • aldizkariak

## IKERFER

Ermo, 25 behea. Durango  
Tel.: 946 810 566

**EGUIA s.l.**  
**AROTEGIA**

• GREMIOEN KOORDINAZIOA •  
Tel.: 946 817 746 - Faxa: 946 056 906  
Mug.: 669 655 169 - Mug(2): 629 587 653

Tabira kalea, 54 • 48200 Durango • [info@carpinteriaegui.com](mailto:info@carpinteriaegui.com)





Mugarako gazteek San Fausto jailetako txupinazo txikia botako dute aurten. Mugarra Triatloi Taldea.

## Duatloiagaz gozatzeko lasterketa herrikoia antolatu du Mugarrak

Urriaren 5ean izango da, eta aurten bederatzigarren aldia egingo du; lehiaketa albo batera utzi, eta duatloiaren inguruko jaia izatea da antolatzaileen helburua

**> DUATLOIA** Joseba Derteano Mugarra Triatloi Taldeak San Fausto jailetan antolatzen duen duatloi herrikoian ehunka helduk eta gaztetxok parte hartzen dute urtero. Duatloiaren inguruko jaia izaten da, eta irabazleek eta azkenengo sailkatuek meritu bera dute.

Izen-ematea egunean bertan egin daiteke, 09:00etatik aurrera, Santa Ana pareko plazan: umeek euro bat eta nagusiek hiru euro ordaindu beharko dute. Batutako dirua Mugarra Triatloi Eskolara bideratuko dute.

Urtero legez, parte-hartzaileak hiru adin tarteren arabera banatuko dituzte. Lehenengo, 10:30ean hasita, 7 urtera artekoen proba jokatu dute. Lehe-

nengo eta azkenengo tarteak arineketan egingo dituzte: Artekale, Zeharkale eta Goienkaletik ibiliko dira (300 metro). Arinteketako zirkuitu bien erdian, bizikleta hartuko dute Pinondo, Tabira eta Santanostetik eramango dituen hiru kilometroko ibilbide bat osatzeko. Ondoren, 11:00etan, 8 eta 14 urte artekoen unea izango da. Horiek 600 me-

**Parte-hartzaileak adinaren arabera sailkatuko dituzte; nagusien proba 12:00etan hasiko da**

tro egingo dituzte korrika, hiru kilometro bizikletan eta, amaitzeko, beste 600 metro korrika.

Nagusien duatloia, ostera, 12:00etan hasiko da. Korrika osatu beharreko ibilbideak kilometro bi ditu: Kanpatorrosteta, Komentukale, Antso Estegiz, Kalebarri eta Goienkaletik ibiliko dira. Lehenengo sektorean itzuli bi emango dizkiote, eta azkenengoan bat. Mendiko bizikletan osatu beharreko ibilbidean Errotatik gora joan, eta Santikurutzetik Abadiñoko txaletetara irtengo dira.

Aurtengo sanfaustoak bereziak dira Mugarrentzat. Izan ere, aurtengo txupinazo txikia Mugarako gazteek botako dute urriaren 11an, 12:30ean.

## Lehenengoz antolatu dute igeriketa proba herrikoia

Urriaren 11n izango da, Landako kiroldegiko igerilekuan; Tabira igeriketa taldeak antolatu du

**> IGERIKETA** J.D.

Tabira igeriketa taldeak igeriketa txapelketa herrikoia antolatu du lehenengoz San Fausto jailetan. Gazte zein helduen artean igeriketa sustatzea eta igeriketa taldea ezagutara ematea dute helburu.


Probarako izen-ematea urriaren 8an eta 9an egingo dute, 18:00etatik 20:00etara, Landako 1 kiroldegian; euro bi balio du, eta parte-hartzaileek txapelketako kamiseta bat jasoko dute dohainik. Gehienez 150 igerilari hartu ahal izango dute parte txapelketan, eta azpiegituren edukiera ahalik gehien aprobeztatuko dute.

Igerilariak adinaren arabera banatuko dituzte, eta kategoria bakoitzeko sei onenak finalera-

ko sailkatuko dira; txapelketa 16:00etan hasiko da, eta parte-hartzaileek 25 eta 50 metroko lasterketen artean banatuko dituzte. Luzera horretan, parte-hartzaileen lana errazteko,

**Izen-ematea urriaren 8an eta 9an Landako 1 kiroldegian egin daiteke, arratsaldean**

igerilari bakoitzak bere igeriketa estilo gustukoenean aritu ahal izango du. Igeriketa txapelketa hiru bat orduan amaitzea itxaroten dute.



Tabira igeriketa taldeko gazteak.

**CHAVES**  
TAPIZAK  
MOKETAK  
ALFONBRAK  
GORTINAK

LARRUKIAK  
LANERAKO BABES-JANTZIAK  
INDUSTRIAKO HORNIGAIK

**DENDA ETA ERAKUSKETA:**  
Erretentxu, 28 behea  
DURANGO

Tel.: 946 811 180  
Faxa: 946 200 938

**AGIRREZABAL**  
48200 DURANGO

elektrotresnak  
Tel.: 946 202 284  
Fax: 946 202 284  
juan antonio abasolo, 10

zikloak  
Tel.: 946 810 388  
Fax: 946 202 284  
frantzisko ibarra, 7 mikeldi

e.aguirrezabal@euskalnet.net

**OIZ**  
M.Z.O. ITURGINTZA  
GASA BEROGAILUAK  
ERAIKUNTZA S.L.

SANEAMENDUA, LOZA, GASA, BEROGAILUAK,  
BAINUGELARAKO ALTZARIAK

**BILTEGIA** UAI Industriagunea, 2 C - 48215 IURRETA  
Tel.: 946 816 051 • Faxa: 946 818 545

**ERAKUSKETA - DENDA** Plateruen Plaza, z/g.  
48200 DURANGO  
Tel.: 946 810 693 • Faxa: 946 818 545

**Azkonizaga**  
CRUZCAMPO • HEINEKEN • BUCKLER • AMSTEL • SHANDY • PEÑACLARA • LA ASTURIANA  
Ortuzar, 1 • 48213 Izurtza (Bizkaia) Tel./Faxa: 946 810 652 azkonizaga@azkonizaga.com  
www.azkonizaga.com

**Jai zoriontsuak opa dizkizuegu durangar guztioi!**

**EROSKI**  
ABADIÑO • zurekin!



# JAIK 2014

## TABIRA ETXEA

Pintxoak • Bazkariak • Afariak



Tabira kalea, 33 • DURANGO  
Tel.: 946 810 241

# ZERO



Ostegun, ostiral eta larunbatetan afariak  
Andra Maria plaza, X - Durango



## momtx

t a b e r n a

plateruen plaza, 12 • 48200 durango  
tel.: 94 681 10 06



## Durangoko euskalgintzak bot txosnaguneko txupinazoa jaie

Urriaren 10ean, udaletxetik kalejiran etorrita, txosnagunean irakurriko du pregoia Durango

► **GUKA** Jone Guenetxea Badatoz San Fausto jaiak, eta, horregaz batera, Guka egitasmoa. Euskaraz bizi direnen eta bizi gura dutenen topalekua izaten da urtero txosnaguneko Guka espazioa. 2012az geroztik, euskalgintzako hainbat elkarte eta eragilek bultzatutako ekimena da; hain zuzen, AEK-k, Euskal Herrian Euskarazek (EHE), Ibaizabal ikastolak eta Berbaroko taldeak (Berbaroko euskara elkartea, Plateruena

Kafe Antzokia eta ANBOTO astekaria). Aurreko urteetan ekimenak harrera ezin hobea izan duenez, aurtengo jaietan parte hartzeko gogoz daudela

**Berbaroko euskara  
elkartek 25 urte  
egin ditu, eta Euskal  
Herrian Euskarazek,  
berriro, 35 urte**

jakinarazi dute Gukako kideek. Lehenengo urtean, Kurutziagako txosnagunean egokitu zuten Guka gunea. Iaz, berriz, Pinondon sortu zuten beraien txokoa, eta aurtengo bertan izango du kokalekua.

**Gukak, txupinazoa**  
Aurtengo jai bereziak izango dira Gukako kideentzat. Izan ere, batetik, Berbaroko euskara elkartearen 25. urteurrena da, eta, bestetik, EHEk 35 bete ditu, be-

## Guka, indar txikiak batuz, euskararen erabilera bultzatuz

Berbaroko Fernan Ruizek eta EHEko Ane Zaratek jaurtiko dute txupinazoa

► **PREGOIA** Jone Guenetxea Gukako kideak pozik daude aurtengo jaietan izango duten aitortzeagaz. *Lehenengo pertsonan, pluralean* leloa aldarri hartuta, duela hiru urte euskalgintzaren batasunaren garrantziaz ohartu ziren, eta ekimen berri bat jarri zuten martxan. "Indar txikiak batu, eta bide beretik denok elkarre-

kin ibilbide berri bati ekitea premiazkoa zela iritzi genion". Jaietan txupinazoa jaurtitzeko eskaintza Gukako kideek bakoitzak bere aldetik zein elkarlanean egindako ibilbidearen aitortzea dela azaldu dute. Berbaroko Fernan Ruizek eta EHEko Ane Zaratek jardungo dute euskalgintzaren izenean. Aitzakia bi dituzte, aurtengo jaietan

tan ospakizun berezia egiteko: Berbaroren 25. urteurrena, batetik, eta EHEren 35. urtemuga, bestetik. "AEKn, Ibaizabal eta Kurutziagan, Berbaron, EHEN, Plateruenean zein ANBOTO astekarian modu batera edo bestera parte hartu duten pertsonen gain, euskaltzale guztiek txupinazoagaz gozatzeko deia egin dute Gukatik.





# tako du etan

ngoko euskalgintzak

raz, txosnaguneko txupinazoa jaurtiko dute. Azaldu dute ohore handia dela “gukatarrentzat” jaien hasieran protagonista izatea.

## Gune euskaldunak

Euskararen erabilera bultzatzeko euskal guneak sortzea da Gukaren helburua. Ildo horretatik, urtero euskalgintzan diharduten elkarteek eta eragileek aurrerantzean elkarlanean jarduteko asmoa dute.

## Egitarau propioa

Gukako karpan egitarau xumea antolatuko dute. Urriaren 12an, 19:30ean poteo girotua abiatuko dute Gukaren karpantik.

**Euskararen erabilera  
bultzatzeko euskal  
guneak sortzea  
da Gukako kideen  
helburua**

**Durangoko eta  
Durangaldeko  
euskaltzaleak  
Gukaren gunera  
gonbidatu dituzte**

Ondoren, GUBingoKA, bingoa antolatuko dute, “sari erakargarriekin”.

## Auzolanerako deia

Jaiak ate-joka dauden honetan, Gukako kideak jaigunea prestatzen hasiak dira. Urtero bezala, Durangoko eta Durangaldeko euskaltzale guztiak Gukara gonbidatu dituzte. “Auzolana oinarri duen proiektua da gurea, eta, adibidez, txosnetako txandetan, ogitartekoak egiten, muntaietan eta dekorazioan laguntzeko edo parte hartzeko gonbita ere egin gura genizueke”. Gukako arduradunekin harremanetan jartzeko [euskarazguka@gmail.com](mailto:euskarazguka@gmail.com) helbide elektronikora mezua bidaltzea edo 946 201 918 telefono zenbakira deitzea jarri dute aukeran. Gainera, sare sozialetan ere izango dugu Gukaren berri: Twitterren [@euskarazguka](https://twitter.com/euskarazguka) eta Facebooken GUKA.



**LAPIKO DURANGO**

Etxeko pizzak. Eguneko menua, karta berria.  
Etxera eramateko zerbitzua.  
[www.lapikodurango.com](http://www.lapikodurango.com)

**Frantzisko Ibarra, 3 - Durango**  
**Erreserbak: 946 218 122**

**Mesoi Berria**

Ogitartekoak  
Kazolak  
Pintxoak

Kalebarria, 1 - Tel.: 946 030 341

**PLATERUENA**

**GOZATU  
SAN FAUSTO  
JAIK!**

Zilarberritzen

Bazkaloste girotuak  
Plateruenean 18:00etatik aurrera

Goizaldera arte bertan  
aurkituko gaituzu



lazgo erreka jaitsierako irudia.



# DURANGOKO TXOSNAK

## JAIK HERRITIK HERRIARENTZAT

# SAN FAUSTOAK 2014


**BARIKUE URRIAK**

# 10

- 20:30 KALEJIRA  
UDALETXETIK  
TXOSNAGUNERA
- 21:00 TXUPINAZOA  
EUSKALGINTZAREN  
ESKUTIK
- 22:00 DINERO+  
MINOR EMPIRES+  
LA M.O.D.A

**ZAPATUE URRIAK**

# 11

**GAZTE EGUNE**

- 12:30 TXAHAL  
ERREKETA
- 12:30 GAZTE EGUNEKO  
TXUPINAZOA  
ONDORENTRIKI POTE OA
- 15:00 GAZTE BAZKARIA  
TXOSNAGUNEAN
- 16:00 BAZKALOSTEKO  
JOLASAK
- 17:30 OLINPIADAK
- 20:00 ELEKTROTXARANGA
- 23:00 PIXONTXIS+  
IHESKIDE+  
NIÑA COYOTE ETACHICO  
TORNADO

**DOMEKA URRIAK**

# 12

- 12:30 UMEENTZAKO  
TAILERRAKETA INGURU  
ABENTURAREN ESKUTIK  
GAZTEENTZAKO JOLASAK  
SANTA ANAN
- 17:00 HERRI PROBAK  
TXOSNAGUNEAN
- 19:30 POTE O GIROTUA  
ETA ONDOREN  
GUBINGOKA  
GUKAREN KARPAN

**ASTELEHENA URRIAK**

# 13

**SAN FAUSTO  
EGUNE**

- 11:00 PAELLA  
TXAPELKETA  
TXOSNAGUNEAN
- 14:00 SARI BANAKETA
- 17:00 ERREKAJAITSIERA

**BARIKUE URRIAK**

# 17

- 18:00 TORTILLA  
TXAPELKETA  
TXOSNAGUNEAN
- 20:00 SARI BANAKETA
- 22:00 HAN+  
GLAUKOMA+  
KASHBAD

**ZAPATUE URRIAK**

# 18

**ELKARTASUN  
EGUNE+  
MOZORRO EGUNE**
**GAIA: UDAZKENEKO OLINPIARJOKOAK**

- 15:00 ELKARTASUN  
BAZKARIA  
TXOSNAGUNEAN
- 23:00 EUSKABARET+  
LUHARTZ

**DOMEKA URRIAK**

# 19

**AGUR SAN FAUSTO!**


BAZKARIAK TXOSNAGUNEAN  
IZANGO DIRA. EURIA EGINEZ GERO,  
ANDRAMARIN.



# Jan-edanak, kirolak eta musikak bat egingo dute Durangoko txosnetan

Hamabi musika talde igoko dira txosnaguneko agertokira; urriaren 12an abentura kirolak izango dituzte



Txosna Batzordeko kideak asteon ataratako argazkian.

**> TXOSNAGUNEA** A. Ugalde  
Aurten lau karpaz eta hiru txosnaz osatuko dute Durangoko eragileek Pinondoko txosnagunea. Urriaren 10ean euskalgintzako kideen txupinazoagaz abiatuko da txosnetako egitaraua. Kontzertuak izaten dira urtero ekintza garrantzitsuenak, eta aurten ere horrela izan-

go da: hamabi talderen zuzeneko gozatzeko aukera egongo da. Horretaz gainera, egunez ere gero eta ekitaldi gehiago antolatzen ditu Txosna Batzordeak.

Pinondoko kokalekuagaz pozik agertu dira txosnaguneko kideak. Euren berbetan, "Durangon txosnak egokitzeke lekurik aproposena" da.

Jaietako ekintzarik arrakastatsuenak erreka jaitziera eta tortilla txapelketa izaten dira. Aurten, nobedadeen artean, urriaren 12an abentura kirolerako gunea ipiniko dute gazteentzat, goizean eta arratsaldean. Bigarren zapatuan, ohi denez, Mozorro Eguna izango da, eta, aurten, mozorrotzeko

gaia *udazkeneko joko olinpikoak* izango da.

## Kontzertuak

Jaien lehenengo gauean hiru kontzertuko kartela egongo da, Dinero, Minor Empires eta La M.O.D.A taldeekin. Zapatuan, berriz, Pixontxis, Iheskide, eta Niña Coyote eta Chico Tornado

taldeek joko dute. Bigarren asteburuko barikua ere kontzertu gau indartsua izango da: Han, Glaukoma eta Kashbad taldeek bisitatuko dute Pinondoko ohol-tza. Zapatuan erromeria doinuak nagusituko dira Euskabaretegaz eta Luhartzegaz.

## Urriaren 11n, Gazte Eguna

Sanfaustoetan, udaletxeko eta txosnaguneko txupinazoez gainera, hirugarren txupinazo bat

**Mozorro Egunerako  
'udazkeneko joko  
olimpikoak'  
ipini dute gaitzat**

ere egongo da, Gazte Egunekoa. Urriaren 11n ospatuko dute Durangoko gazteek egun hori. 12:30ean Intxaurren egingo dute txupinazoa, eta goizaldera arteko jaiak izango dute gero.

Txupinazoaren ostean, poteoan irtengo dira gazteak, eta 14:30 aldera txosnetan batuko dira, bazkarirako. Bazkariko txartelak Arkarazo, Mesoi Barria eta Intxaurre tabernetan daude salgai, hamar euroan. Bazkalostean, tribialean jokatu dute.

Denen artean mahaia batu eta gero, gazte olinpiaden txanda izango da, 17:30etik 19:30 aldera. Iluntzean elektrotxarangak girotuko du jaiak, eta, 01:00ean, Gazte Gaba hasiko dute txosnagunean.



Iheskide taldeak urriaren 11n eskainiko du kontzertua.



Dinero hirukotearena izango da lehen gaueko kontzertuetako bat.



**ARANTZA ÁLVAREZ**  
PSIKOLOGOA - SEXOLOGOA  
Nº Col. GZ-1517

- Orientazioa – Sexu informazioa
- Sexu terapia
- Bikotekide aholkularitza
- Bikotekide arteko haustura gaitzitzeko laguntza

Kontsulta Durangon eta Eibarren  
Tel.: 645 732 388 · sexologiappareja@hotmail.com



**BERETEK**  
ARKITEKTO TEKNIKOEN BULEGOA

Tel.: 666 025 143  
622 745 419

Jarduera proiektuak  
Eraikinen Ikuskapen Teknikoak EIT-ITE  
Ziurtagiri energetikoak  
Birgaitze eta berrizteak  
Eraikinen patologia txostenak...

Ibaizabal auzunea, 5 behea  
48.200 Durango (Bizkaia)  
www.beretek.es



**Anton Arieta** | Futbolari ohia | Durango, 1946

# “San Mames Barria ez dut ezagutzen, baina zaharra bihotzean daukat”

San Fausto jaietan, urriaren 12an, omenaldia jasoko du Anton Arieta Athleticeko jokalaria ohiak



**> OMENALDIA** M. Onaindia Athleticen talde oroituenetako baten parte izan zen Anton Arieta durangarra, 1964tik 1974ra bitartean. Iribar, Villar, Rojo, Sáez, Lasa... Izen handi horien artean Arieta anaiak ere bazeuden. Izan ere, bere anaia-gaz, Eneko Arieta zenagaz, jokatzeko zortea eduki zuen Antonek urte batzuetan. Kulturalak eta herritarrek urriaren 12an omenduko dute Arieta.

**Zelan hartu duzu omenaldia egiteko ideia?**

Sorpresa handia izan da. 50 urteren ostean, imajinatu ezazu. Lehenik galdetu egin zidaten, eta nik baietz. Ez naiz horrelako gauzen oso zalea, baina beno. Aurrrera joan da ideia, eta gutxi falta da dagoeneko.

**Gazte hasi zinen Athleticen...**  
Patxi Garate zegoen bigarren entrenatzaile lanetan, eta gazte mailan hara eroan ninduen, 15 urte gaz. 18gaz lehen taldera pasatu nintzen.

**Aurrelari postuan jokatzeko zenuen.**

Hasieran, aurrelari postuan; gero, eskumatik; eta, azkenean,

oso handia, eta lasaitasuna ematen zidan.

**Errege Kopa bi irabaztera heldu zinen, ezta?**

Bai. Hamar urtean Errege Kopako lau final jokatu genituen; bi galdu genituen, eta beste biak irabazi. Ez dago txarto! Lehen gaitza zen, baina orain geroz eta zailagoa da. Taldeek atzerritarrek ekartzen dituzte, eta Athleticen hemengoak gara.

**Beti esan izan da Athletic Errege Kopako erregea izan dela. Izaera kontua da?**

Akaso, Errege Koparako mentalitate handiagoa zeukan Ligarako baino. Baina orain gaitzagoa da. Lehen, txarto akordatzeko ez banaiz, finalean atzerritar bi ipini ahal ziren gehienez.

**Orain estadio berria dago; baina zelan gogoratzen duzu zaharra?**

San Mames Barria ez dut ezagutzen, baina zaharra bihotzean daukat. San Mamesen entrenatzen hasi nintzenean 15 urte neuzkan, eta oroitzapen asko

dauzkat. Han jokatzeko etxean lez egotea zen, eta beti beteta egoten zen.

**Baina urte batzuen ostean, taldeak irten behar izan zenuen, eta ez zure erabakiz.**

Ez, ez, ez. Ez dakit nondik etorri zen kontua. Baina beno, Athletic ondo portatu zen nigan. Hercules etorri zen, eta akordioari zegokion dirua niri eman zidaten. Hemen baino gehiago irabazten nuen, baina nik hemen geratu gura nuen. Batzuetan dirua ez da dena. Urte bi egin nituen han, eta gero Espainia hegoaldeko

talde batek deitu zidan. Baina ezetz esan nuen, etxera bueltatu nintzela. Hiru umegaz hara eta hona ibiltzea...

**Historiak dio Herculesegaz go-la sartu zenuela San Mamesen. Egia da?**

Horrela da, bai. Arraroa izan zen.

**Gaur egun asko eztabaidatzen da zein ote den munduko jokalaririk onena. Messi, Ronaldo... Zein izan da zuk ezagutu duzun futbolari onena?**

Nire ustez, munduan egon den futbolari onena Alfredo Di Estefano izan da. Maradona eta Messi fenomeno batzuk dira, horregaz ados. Baina Di Estefanok futbola eraldatu zuen. Hemen oraindik zapatilen atzealdea zertarako zen ere ez genekien, berak orpoagaz sartzen zituen golak.

zelai erdian, Villar eta Rojogaz batera.

**Askok gogoratzen zara sasoi horretaz?**

Ez uste asko arduratzen naizenik, sasoi hori pasatu zen. Batzuetan lagunekin-eta gogoratzen dugu, eta kito. Gauzak aldatu egiten dira.

**Zure anaia-gaz jokatu zenuen. Zerbait berezia izan zen, ezta?**

Bai. Taxista neukan joan-etorria egiteko [barrez]. Anaia-gaz beti eduki izan dut konfiantza



Arieta, irabazitako kopa bat jasotzen.



Anton Arieta, Athleticeko jokalaria zeneko argazki batean.

## GALLASTEGI

www.gallastegiharategiak.com

1955ean sortua

Zalduasolo, 8  
946 827 038  
48250 ZALDIBAR



Baimendutako  
harategia  
Euskal Okela  
Carniceria  
autorizada

Antso Estegiz, 1  
946 812 247  
48200 DURANGO

**AMAYA**  
AUTO KONPONKETAK S.L.

UAI, I INDUSTRIAGUNEA  
(Orozketa errepidea)  
48215 Iurreta / Bizkaia  
126 Posta Kutxa Durango  
www.amayaautoreparaciones.com

Tel.: 946 812 123 • Faxa: 946 203 818  
oficina@amayaautoreparaciones.com

**URTXINTXA**  
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK

Andra Maria kalea, 9 DURANGO

Tel.: 946 815 017





**CANTÁBRICO**  
ARRAINDEGIAK

San Fausto  
jaiak  
**ZOZKETA  
ITZELA!**

**200 euro balio  
duen otzara  
zozkatuko dugu  
gure produktu  
onenekin**

**ZOZKETA**  
zapatuan,  
urriak 11,  
13:00etan


Asteartetik ostiralera  
8:30etik 14:00etara eta 16:30etik 20:30era.  
Larunbatetan 8:30etik 14:30era

**Jai zoriontsuak durangar guztiei!**

Montevideo etorbidea, 9 behea | 946 216 505 | [info@pescaderiascantabrico.com](mailto:info@pescaderiascantabrico.com)




**Zure atsedena dia  
hobetzen  
lagunduko  
dizugu.**



Zuri egokitutako aholkularitza dugu. Kalitate handiko koltxoiekin eta polipiel edo egurrezko kanapeekin packak egiten ditugu, deskontu interesgarriak eskaintzeko.

**Azken joerak ditugu oheko  
arropetan, koltxoi-babesetan  
eta ehun adimenduneko burkoetan.**



**Ondo pasau jaixetan!**

Olleria, 3 Durango - Bizkaia • Tel.: 946 550 700 • [gau-tu@hotmail.com](mailto:gau-tu@hotmail.com)



**Paco Obregón** | Antzerkigilea | Durango, 1952

## “Giza harremanez aritzea oso gogoko dut, eta Chéjov maisua zen horretan”

Paco Obregón antzerkigile durangarrak idatzi eta zuzendu duen ‘Adiós, Chéjov’ obra estreinatuko dute gaur eta bihar, Durangon; San Agustin kulturgunean izango dira emanaldi biak, 20:00etan hasita



**> ANTZERKIA** Itsaso Esteban  
**Madriken egon zara asteon ‘Adios, Chéjov’ antzezlanaren aurre-estreinaldia eskaintzen. Zelakoa izan da harrera?**

Antzerkigintzan lan egiten duten lagunei erakutsi diegu antzezlan. Euren inpresioak jaso ditugu, eta funtzioa orrazten joan gara entsegu irekietan. Oso pozik gaude, baina publikoak erakutsiko digu obrak funtzionatzen duen ala ez. Baldintza zailetan atera dugu proiektua aurrera, eta asko eskertzen ditut hainbeste inplikatu diren kolaboratzaileak.

**Obraren egilea eta zuzendaria zara, beraz, inplikazio berezia izan duzu proiektu honeguz.**

Bai, baina Geroa antzerki taldean aritu nintzen sasoiaren ikasi nuen zuzendaria testuari lotuegia dagoen prozesua ez dela dirudien bezain ona. Obra honetan testua beste batena balitz bezala saiatu naiz jarduten: saiatu naiz testutik aldendu, eta aktoreen lanean asko oinarritzen. Testua aitzakia da antzerkia egiteko, baina antzerkia gauzatzen da izaki bizidunek oholtzan gorpuzten dutenean. Aktoreak ematen dio testuari bizitza.

**Zer dela-eta Chéjov?**

Gogo handia neukan bere testuekin lan egiteko: oso gustuko dut nire lanetan giza harremanei buruz berba egitea, eta Chéjov maisua zen horretan. Sufriz dugun gizagaixo guztiei buruz ziharduen Chéjovek bere lanetan. Gu guztietaz. Bizi osoan neure iritzia politikoa garatzen saiatu naizen arren, uste dut artistikoki ez naizela batere politikoa. Emozioei eta harremanei buruzko testuekin nabil askoz gusturago. Nire lanean iparratzen duten Chéjoven esaldia bota nien kideei lehenengo egunean: “Santuek, demonioek eta ergelez idazten dute nire ingurukoek; santuak eta demonioak saihestu ahal izan ditut nik, baina ergelak saihestezinak ditut”.

**Nondik dator obraren ‘Adiós, Chéjov’ izenburua?**

Paustovskik bere autobiografian kontatzen duen anekdota bat dago oinarrian: Errusiako iraultza-aren hasieran, bere etxeko leihotik bala bat sartu zela eta horman zeukan Chéjoven argazkia jo eta behera bota zuela kontatzen du bertan. Ideia horretatik tiraka hasi nintzen deabruak hartu ba-

nindu bezala idazten, eta egun gutxitan amaitu nuen gidoia.

**Zure ibilbidean berezia da bizi duzun momentu hau?**

Bueltatzearen sentsazioa daukadalako da berezia, bai; 38 urte gero bertan 20 urtez jardun ostean. Idazteari, zuzentzeari eta eskolak emateari ere utzi nien, eta Madrilera alde egin nuen. Obra

honeguz Durangora bueltatzea sendagarria da. Oreka berreskuratu dudala sentitzen dut.

**Zer bide egingo du obrak?**

Durango estreinaldiaren ostean ikusiko dugu aukera berriak sortzen den. Domekan, Madriken estreinatuko dugu eta, urrian eta azaroan, bertan egoteko asmoa daukagu. Jende askok ikusi dezan nahi dugu, noski.

**Zelakoa izan zen zure hasiera antzerki munduan?**

Oso zaila izan zen, oso aurkako giroan genbiltzalako. Gogoan dut Jesuitetako lagunei esan nien antzerkitik bizi nahi nuela, barre egin zidatela: norbaitek gaur egun sugeak dantzaraztetik bizi nahi duela esatearen parekoa zen. Baina lortu genuen. Oso gogorra izan zen Geroa utzi, eta zer bide jarraitu ez jakitea; eta zaila berriro indarra hartzea.

**Zerk gaiztotzen zuen giroa?**

Inork ez zuen ulertzen zertan genbiltzan, eta ez geneukan inoren laguntzarik. Gogoan dut Eusko Jaurlaritzako lehenengo sailburuak zera esan zigula: “Nik milioi pilo handi bat baneuka ere, sekula ez nizuke zuei eman-go, euskal antzerki nazionala, letra larriz idatzitakoa, egiten ez duzuen artean”. Jendeak ez zuen ulertzen antzerki profesionaleko talde batek zer demontre egiten zuen Durangon.

**Gaur egun, aldiz, antzerki amateurak badihardu bidea egiten Durangaldeen?**

Bai, ezagutzen dut Banarte eta Txintxaun taldeen lana, esaterako, eta eurekin kolaboratu izan dut ikastaroak ematen. Uste dut Geroa utzi zuela hazirik, eta asko poztzen nau guri hainbeste kostatu zitzaiguna gaur egun errazagoa dela ikusteak.

**Madriken ere sortzen ari dira bestelako egitasmoak.**

Antzerki areto berri asko zabaltzen dabilta, adibidez, bai. Dinamismo handia dago; krisiaren ginetik, badago aurrera egiten duen jendea antzerkian ere. Aniztasun handia dago, eta horrek oso harreman eta elkarlan aberasgarriak sortzen ditu.



‘Adiós, Chéjov’ obrako antzezle taldea.



**> BERTSOLARITZA** I. Esteban Bilbon aurkeztu zuten atzo abenduaren 20ra bitartean jokatu duten Bizkaiko Bertsolari Txapelketa. Urriaren 12an egingo dute txapelketako lehenengo saioa Galdakaon, eta, abenduko finalera heldu orduko, beste lau kanporaketa eta hiru finalaurreko jokatuak dituzte. Azaroaren 2an Mallabiko pilotalekuak hartuko du laugarren kanporaketa saioa, eta Zornotzako Zelaieta zentroan jokatu dute azken finalaurrekoa.

Txapelketa honetan parte hartu ahal izateko txartela eskualdekako txapelketetan lortu duten 30 bertsolarik abiatuko dute lehiaketa kanporaketa saioetan, eta finalaurrekoetan gehituko zaizkie 2012ko txapelketako zazpi finalista.

Besteak beste, Miren Amuriza Plaza, Aitor Bizkarra Ruiz, Beñat Ugartetxea Ostolaza, Garikoitz Sarriugarte Onaindia, Eneko Abasolo Txabarri eta Gorka Lazkano Arrizubieta Durangaldeko bertsolariek hartuko dute saioetan parte.

## Bizkaia bertsolariz eta bertsozalez josteko, txapelketa antolatu dute

37 bertsolari ariko dira Bizkaiko Bertsolari Txapelketan, urriaren 12tik aurrera

Bizkaiko Bertsozale Elkar-teak eskualdeak bertsogintza-ren inguruan elkartuta egiten duen lanaren metaforatzat har-

tuta, *josi* berba hautatu dute 2014ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren lelotzat. Bizkaia bertsolariz eta bertsozalez josiko

dutela esan dute antolatzaileek. Saioetarako sarrerak [www.bertsosarrerak.eu](http://www.bertsosarrerak.eu) webgunean daude, dagoeneko, eskuragai.



Bizkaiko Foru Aldundiaren prentsa aretoan aurkeztu zuten txapelketa.

### GEURE DURANGALDEA

LIBE  
MIMENZA

Kazetaria



### Prekarietatea

Heriotzak mututu egiten gaitu, barnera bildu, paralizatu, haserretu, amorrutze bete. Kaleak begi tristez lausotzen dira, bisaia zurrun eta begirada galdutze bete.

Izan daiteke heriotza naturala, bat-batekoa, gaixotasun luze baten azken pronostikoa, erailketa bortitza... Zahar, heldu, gazte zein haur. Heriotzak ez dauka legerik, ezta justizia irizpiderik; bizitzaren hauskortasun ahularen kontzientziarekin kolpatzen gaitu behin eta berriz.

Lana da bizitzaren zati handia betetzen digun jarduna. Nor izateko bidea edota nor izatea bera ukatzen diguna. Diotenez, lanak askeago egiten gaitu, duindu egiten du... Eta bai, lanak, hil ere egiten gaitu.

Tabua da heriotza. Hala ere, guztion ipuinek amaiera bera dute idatzita letra larriz: hilotz, heriotz.

Zergatik izakiak horrenbeste urte eta gero ez du heriotzari artez nola begiratu eta horrekin nola bizi asmatu?

Amaiera orok hasiera ere bada- kar, ipuina amaitu orduko sortzen baititugu ipuin berriak. Eta protagonistek beste izaera bat hartu arren, protagonista izaten jarraitzen dute bakoitzaren barneko ipuinetan.

Ikaratuta ezin bizi, baina ikara gabe ezin bizirik sentitu. Herio- dantzaren doinuarekin bizitzen (ezin) ikasi.

Langile gazte baten heriotzak ilundu du Durangaldea asteen. Lan baldintzak, aurreikusitako aurre hartu daitezkeen egoerak izan ditugu hizpide. Azkena izan dadila eskatu dugu, berriz.

Ez dago bizitza gozatzea beste bizitarik.

## Bihar, etzi eta astelehenean, Film Sozialak Arriolan

### > ZINEMA

Kultura Communication De- sarrollo gobernuz kanpoko erakundeak antolatzen duen Film Sozialen jaialdiko filmen emanaldiak eskainiko dituzte Elorrioko Arriolan. Bihar, 22:30ean, eta etzi eta astelehe- nean, 20:00etan, izango dira emanaldiak. Egunean lau-bost film emango dituzte: iraupen laburreko fikziozko lanak eta film dokumentalak izango dira gehienak.

Euskal Herrian, Indian, Guatemalan, Marokon, Bra- silen, Senegalen, Argentinan eta Kanadan ekoiztiriko filmak eskainiko dituzte. Ingurume- nagaz, genero gaiekin eta giza eskubideekin harremana du- ten gaien inguruko filmak dira.

## Jabi Renobalesen lana, Zornotza Aretoko ikasturtea abiatzeko

Publiko familiarrari zuzendutako 'Kibubu' obra izango da gaur ikusgai

### > PROGRAMAZIOA

Marie de Jongh konpainiaren familia osoarentzako *Kibu- bu* ikuskizuna izango da gaur, 20:00etan, Zornotza Aretoko urte amaierako programazioa za- balduko duena. Jabi Renobales aktore zornotzarra da obra ho- rretako protagonista nagusia. Hain zuzen, Feten lehiaketan aktore onenaren saria jaso zuen lan horregatik Renobalesek.

Luisja Ugarte kultur pro- gramatzaileak, Jabi Renobales aktoreak eta Andoni Agirrebe- tia zinegotziak aurkeztu zuten astelehenean Ametx erakunde autonomoak urte amaierara arte prestatu duen programa- zioa. Gaurkoaz gainera, publi- ko familiarrari zuzenduriko beste lau ikuskizun ere izango

dira Zornotza Aretoran, datozen hilabeteetan. Azaroan, umeei zuzenduriko dantza garaikidea oinarri duen ikuskizuna eskai- niko du Elirale konpainiak; Her- beheerretako Dansmakers tal- deak, berriz, *Kleur* ikuskizuna. Abenduan, *Amama Anaren bi- daia* eta *Hiru txerritxoak* eskai- niko dute La Papa Teatroak eta Glu Glu antzerki konpainiak.

Ohi bezala, mota guztietako ikusleei zuzenduriko proposa- menak programatu ditu Zor- notzako Ametx erakunde auto- nomoak datozen asteetarako. Urriaren 10ean *Delirios de papel* obra eskainiko du Txileko La Llave Maestra konpainiak, eta *Cabaret Chihuahua* "musikal kritiko eta ironikoa" izango da ikusgai urriaren 24an.

Khea Ziater eta Mirage Tea- tro taldeen ikuskizunak ere izango dira datozen hilabete- tan, eta Saharaz hegoaldeko ha- malau etorkinek *Quijotadas* es- kainiko dute abenduaren 12an.

### Egiarte zornotzarra

Musika eskaintzari dagokio- nez, besteak beste, Gabacho Co- nnection jazz boskotea eta Beñat Egiarte Zornotzako abeslaria ariko dira Zornotzan. Osasun arazoak zirela-eta, bertan behe- ra utzi behar izan zuen Egiartek azaroaren 28ko emanaldia.

Zinemazaleentzako eskain- tzaren berri ere eman dute. *Frances Ha*, *Boyhood*, *Alabama Monroe*, *Begin again*, *Jersey boys*, *Le passe*, *Omar* eta *Hermo- sa juventud* emango dituzte.



### Adiós, Chéjov

Paco Obregón

Urriaren 3an - 20:00etan  
Urriaren 4an - 20:00etan



### Sialuk hartz txikiaren bidaia

En la lona antzerki taldea

Urriaren 5ean - 18:00etan

San Agustín  
KULTUR  
GUINEA  
DURANGOKO UDALA

|                                                                                                            |                                                                                                             |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>PLATERUENA</b><br>Durangoko Kafe Antzokia<br><a href="http://www.plateruena.net">www.plateruena.net</a> |                                                                                                             |
|                                                                                                            | <b>URRIAK 3 - 21:00etan</b> 18 / 22 euro<br><b>Swans + Pharmakon + Ainara LeGardon</b><br>MUSIKA KONTZERTUA |
|                                                                                                            | <b>URRIAK 19 - 18:00etan</b> DOAN<br><b>AIKO ERROMERIA</b><br>ERROMERIA                                     |
|                                                                                                            | <b>URRIAK 24 - 22:00etan</b><br><b>THE FULL MONTY</b><br>ANTZERKIA                                          |
| Eguneko menua astelehenetik larunbatera<br>Landako etorbidea, 4A 48200 Durango Tel.: 946 030 300           |                                                                                                             |

Hemen agertu  
gura badozu  
**deitu!**



946 217 902





# Orientazio, bizikleta, piragua eta trekking probetan arituko dira 60 bikote, Otxandion

Zapatuan, Arratia Raid probaren hirugarren aldia lehiatuko dute Otxandiotik abiatuta



Iazko Arratia Raid probako parte-hartzaileak, proba hasi aurretik, ibilbideko mapa aztertzen. Arratia Raid taldea.

**> MENDI PROBA** J. Derteano  
Arratia Raid taldeak eta Areatzako Kultur eta Kirol Batzordeak antolatuta, Arratia Raid proba jokatuko dute bihar, Otxandion. Parte-hartzaileek zazpi ordu izango dituzte mendiko bizikletako, trekkingeko eta piraguako tarteetan banatutako ibilbidea osatzeko. Hauspoa ez ezik, orientaziorako gaitasuna ere beharrezkoa da diziplina anitzeko proba honetan.

Piraguan egin beharreko 4,5 kilometroko ibilbidea da aurtengo nobedadeetako bat

Guztira, 60 bat bikotek parte hartuko dute. Euskal Herri oso-ko bikoteez gainera, Errioxako eta Kantabriako batzuk ere etorriko dira.

Raida 10:00etan hasiko da, Otxandion. Lehenengo, orientazio proba bati aurre egin behar-ko diote bikoteek. Ondoren, mendiko bizikleta hartuko dute; ibilbideko une batean bizikleta albo batera utzi, eta tirolina saio bat izango dute. Gero, berriro bizikleta hartu, eta urtegira arteko bidea egingo dute, aurtengo nobedade nagusienari aurre egiteko: piragua proba. Urtegian 4,5 kilometro arrau-  
nean egin beharko dituzte parte-hartzaileek. Segidan, trekkingaren txanda izango da:

“Luzea eta gogorra da, baina oso polita; pagadi eder batetik ibiliko dira”, adierazi du Gaizka Agirre raideko antolatzaileetako batek. Azkenik, bizikleta saio baten ostean, Otxandion helmugaratuko dira.

Ohiko probekin batera, ibilbidean zehar “sorpresa eta proba bereziak” ere aurkituko dituzte bikoteek. Raidaren ostean, bazkaritara batuko dira herriko plazan, eta hainbat opariren zozketa egingo dute.

Arratsaldeko 18:00etan sariak banatuko dituzte irabazleen artean. Aurtengo, ohiko mailez gainera (gizonak, emakumeak eta mistoa), Arratia-Otxandio izeneko maila bat ere egongo da aukeran. Kategoría horregaz in-

guruko zaletuak parte hartzera gonbidatu gura dituzte antolatzaileak.

## RAID PROBA

- **Orientazio proba:** 7 kilometro.
- **Mendiko bizikleta eta tirolina:** 11 kilometro. (+350 metro).
- **Piragua:** 4,5 kilometro.
- **Trekkinga:** 11 kilometro (+900 m.)
- **Mendiko bizikleta:** 10 kilometro (+250 m.)

## Andres Espinosaren oroimenezko martxa

Domekan, Zornotzako Jauregibarriatik irtengo dira

### > MARTXA

Domekan Andres Espinosa mendizalearen oroimenezko martxa izango da Zornotzan, udalak antolatuta. Proba 08:30ean hasiko da, Jauregibarriako lorategi botanikoan. Ibilbideak 22,5 kilometro ditu.

Sei urtetik gorako gazteen-tzat beste ibilbide bat ere antolatuko dute. 10:00etan hasiko da, sei kilometroko luzera izango du, eta une oro begirale bi egon-

go dira gaztetxoek joan-etorriak zaintzen.

### Espinosaren lorpenak

Andres Espinosa zornotzarra (1903-1985) mendizale ezaguna izan zen. Bere ibilbidean lorpen azpimarragarriak eskuratu zituen; 1929an eta 1930an bera izan zen Mont Blanc (4.807 metro) eta Kilimanjaro (5.895 metro) mendietara bakarrik igo zen lehen pertsona.

## Amorebieta segidako hirugarren garaipenaren bila

Rayo Vallecano B taldea hartuko du Urriksen

### > FUTBOLA

Amorebieta futbol taldea bolada gozoi jarraipena ematen saiatuko da bihar. Azken jardunaldi bietan hirunaka batu dituzte Yugo-Socuellamos eta Real Madril Castilla taldeen aurka (sei gol alde eta bakar-  
ra kontra) eta sailkapenaren goialdean kokatu da.

Hamar puntugaz sailkapeneko zazpigarren postuan (Huesca seigarrenagaz berdinduta) dago

taldea. Bihar, 16:00etan, Rayo Vallecanoren filiala hartuko du Urriksen. Real Madril Castilla azken sailkatuaren eta Yugo-Socuellamos azken-hirugarrenaren antzera, Rayok ere ez du ondo hasi denboraldia, eta beheko postuetan dago sei puntugaz. Hala ere, filial guztien antzera, jokalariek gazte eta ausartak dituzte. Hurrengo jardunaldian Las Palmas bigarren sailkatuari egingo dio bisita Amorebietak.

## AGENDA

### > FUTBOLA

#### BIGARREN B MAILA

**Amorebieta - Rayo Vallecano**

· Zapatuan, 16:00etan, Zornotzan.

#### HIRUGARREN MAILA

**Durango Kulturala - Bermeo**

· Zapatuan, 17:00etan, Durangon.

#### MAILA GORENA

**Zaldia - Aranguren**

· Zapatuan, 17:00etan, Zaldibarren.

#### BIGARREN ERREGIONALA

**Iurretako B - Bakio**

· Zapatuan, 18:00etan, Durangon.

### > ARETO FUTBOLA

#### HIRUGARREN MAILA

**Elorrioko Buskantza - Inter**

· Zapatuan, 18:00etan, Elorrioren.

#### EUSKAL LIGA

**Mallabia - Presion Break**

· Domekan, 18:00etan, Zaldibarren.

#### LEHEN ERREGIONALA

**Presion Break B - Zuentzat**

· Zapatuan, 16:45ean, Berrizen.

**Abadiñoko Gaztetxe - Mallabia B**

· Zapatuan, 17:00etan, Matienan.

### > SASKIBALOA

#### LEHEN ERREGIONAL BEREZIA (gizonak)

**Zornotza - Agustinos**

· Domekan, 20:00etan, Zornotzan.

#### BIGARREN ERREGIONALA (emakumeak)

**Zornotza - Ugeraga**

· Domekan, 12:00etan, Zornotzan.

### > ERRUGBIA

#### OHOREZKO B MAILA (gizonak)

**DRT - Bera Bera**

· Zapatuan, 17:00etan, Durangon.

#### EUSKAL LIGA (emakumeak)

**DRT-Urbe - Gaztedi**

· Zapatuan, 15:00etan, Durangon.

### > PILOTA

#### OLAZAR TXAPELKETA

**Lau 1.erdian: Olano - Laso**

**Binaka: Elezkano I - Bolinaga / Dorronsoro - Perez**

· Urriaren 9an, 21:30ean, Zaldibarren

#### SAN FAUSTO TXAPELKETA (zesta-punta, final laurdenak)

- **Hossegor - Gasteiz**

- **Tolosa - Durango**

· Zapatuan, 18:00etan, Durangon.

- **Mutriku - Bidart**

- **Biarritz - Markina**

· Domekan, 12:00etan, Durangon.



# Sorginen Lasterketa Axpen hasiko da, eta ohiko ibilbidea berreskuratuko du

Gizonetan, Oier Ariznabarreta denboraldia biribiltzen saiatuko da Atxondoko proban



Aurtengo ekitaldiak 132 parte-hartzaile izango ditu.

## > MENDI LASTERKETA J.D.

Domekan, Sorginen Lasterketaren zazpigarren aldia lehiatuko dute Atxondon. Aurten ohiko ibilbidera itzuliko dira. Iaz Apatan hasi eta amaitu zen lasterketa, eta aurten, aldiz, aurreneko bost aldietan bezala, Axpen irten

eta helmugaratuko dira parte-hartzaileak. Horregaz batera, Topetik Besaiderako igoera ere berreskuratuko dute.

Aurtengo ibilbideak 25,6 kilometro ditu, eta 1.300 metroko desnibel positiboa. 09:30ean irtengo dira Axpetik, eta Larrano

mendi lepura igoko dira; 997 metrogaz, lasterketako punturik garaiena da. Hortik Pol-pol eta Zabalaundira joango dira. Ondoren, Topera jaitsi, eta Besaiderako igoera hasiko dute. San Roke eta Santiagotik igaro ostean, Axpen helmugaratuko dira.

Guztira, 132 korrikalarik parte hartuko dute Sorginen Lasterketan: 121 gizonetzok eta 11 emakumek. Faboritoak bereiztea ez da erraza. Gizonetan Oier Ariznabarreta durangarrak oso denboraldi ona egin du; sasoiaren azken txanpan, 2012an lortutako garaipena berrizteko faborito nagusien artean sartu daiteke. Espainiako Duatloi Txapelketako txapeldunordea da, eta bereak dira Berako (Nafarroa) eta Sarako (Lapurdi) mendi lasterketetako markarik onenak.

Emakumeetan Oihana Azkorbebeitia abadiñarra faboritoen artean sartzen dute adiuek. Joan zen asteburuan, Apuko Kilometro Bertikala irabazi zuen Zaramillon (Gueñes, Bizkaia). Hala ere, berak ez du bere burua faboritotzat jotzen. Ez da denbora asko entrenamenduetara bueltatu dela, eta lasterketa ahalik ondoen amaitzea du helburu. Iazko irabazle Imanol Goñi eta Silvia Trigueros, ez dira etorriko aurtengo aldira.

## ADITUAREN TXOKOA



**Eneritz Iturriaga**

Txirrindulari ohia

## Ponferrada, hausnarketa puntua

Joan zen asteko egunak oso garrantzitsuak izan dira, bai Ponferradan, bai nik maite dudakirolean, txirrindularitzako Munduko Txapelketa izan baita. Krisiaren zurrumurru guztiak pasata, azkenean jokatu da txapelketa, eta berri on eta txar ugari utzi ditu. Lehenengo eta behin, Valverdearen seigarren domina izan da garrantzitsua. Gure elite mailako mutilak berriz ere podiumean.

Baina beste kategorietan zer gertatu da? Ez dakit inoiz konturatu zareten, baina Munduko edo Europako Txapelketak zein Olinpiar Jokoak direnean, proba antolatu duen nazioko kirolariek beti domina bat baino gehiago irabazten dute, orokorrean; Ponferradan, ordea, ez da hori gertatu. Kategoria gazteak ikusita, neskek eta mutilek oso maila ona eman dute, baina podiumetik urrun. Euren ilusioak eta prestaketak segur aski asko mimatu dituzte, eta %200 eman dute pedalkada guztietan. Seguru nago!

Baina hemendik bi-hiru urtera Valverde, Purito, Contador... erretiratzaren direnean, zer? Noiz hasiko dira umeekin lan egiten? Eurak dira gure etorkizuna, eta zergatik ez dute eurekin beste nazioen antzera lan egiten? Danimarka, Norvegia, Suedia, Italia, Alemania... betiko herrialdeak dira, eta gu zer? Non daude erakundeak? Non dago federazioa? Non daude laguntzak? Hemendik bost urtera ikusiko dugu zer gertatzen den. Orduan bai komerkiak. Gazteak dira gure etorkizuna, eta eurekin lan egin behar da. Altuago esan dezaket, baina argiago ez!

## Durango-Bizkaiak gazteei emango die aukera

Denboraldi berrirako gazte mailatik datozen Lanz, Escursell, Casado eta Teruel fitxatu dituzte

## > TXIRRINDULARITZA

Bizkaia-Durango taldea denboraldi berrirako taldea egituratzen ari da. Oraingoz, gazteen aldeko apustua egin du, eta iaz gazte mailan ibili ziren lau txirrindulari fitxatu ditu: Paula Sanz gasteiztarra, Elisabet Escursell kataluniarra, Coral Casado palentziarra eta Alba Teruel valentziarra.

Sanz Zirauna-Iturribero taldetik etorri da, eta ekaineko Durango-Durango klasikoan Euskadiko selekzioagaz aritu zen.

Escursell Top-Net taldetik heldu da, eta bere lorpenen artean Kataluniako Kopa irabazi izana dago.

Meruelo taldetik datorren Casadok etorkizun oparoa duela erakutsi zuen joan zen denboraldian: Euskaldun Torneoeko zein Espainiako Kopako lasterketa guztietan hamar onenen artean sailkatu zen.

Teruel valentziarrak Errioxako eta Tafallako lasterketak irabazi zituen iaz, eta Europako Txapelketan parte hartu zuen.

## Sasikoak eta Elorriokok denboraldia hasiko dute

Areto futboleko eskualdeko ordezkari gorenak dira

## > ARETO FUTBOLA

Asteburu honetan Sasikoa Durangok eta Elorrioko Buskantzak aurtengo denboraldiari ekingo diote, areto futboleko Hirugarren Mailan. Aurten hamahiru talde arituko dira maila horretan, iaz baino bi gutxiago. Mallabia eta Uxoa taldeek uko egin behar izan diote Hirugarren Mailari, ezin izan dituztelako bete federazioaren diru eskakizunak.

Elorrioko Buskantzak talde indartsua osatu du, eta zapatuan, 18:00etan, Donostiako

Internacional taldea hartuko du etxean. Sasikoak Bilbo areto futbol taldeari egingo dio bisita domekan, 12:00etan.

Euskal Ligako denboraldia ere asteburu honetan hasiko da, Durangaldeko lau taldegaz: Presion Break, Elorrioko Buskantza B, Mallabia eta Sapuberri. Azken talde bi horiek derbia jokatu dute domekan, 18:00etan, Zaldibarko kiroldegian.

Futboleko Bigarren Erregionala ere asteburuan hasiko da, eta Iurretako B eta Amorebieta B taldeak bertan daude.

artekalea, 14 durango  
946 810 776  
info@hitzliburutegia.com

artekalea, 14 durango  
946 810 776  
info@hitzliburutegia.com

**Aste honetan Hitzek gomendatzen dizu:**

| HELDUENTZAT                                                                   | UME ETA GAZTEENTZAT                                                           | MUSIKA                                                    |
|-------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------|
| <p><b>TUNELAK, IZARAK, MOZORROAK ETA BAFLEAK</b><br/>Josu Martinez (2014)</p> | <p><b>ZORIONEKO HONDAMENDIA</b><br/>Adela Turin &amp; Nella Bosnia (2014)</p> | <p><b>LISABÖ</b><br/>Animalia Lotsatuen Putzua (2012)</p> |

**ZARATE ELEXPE ERAKUNTZA**

Bixente Kapanaga, 19 behea - 946 816 673 - Iurretako  
www.zarateelexpe.com



# IRAKURKETAREN GARRANTZI GORENA [ I ]

Udako oporraldien ondoren, ikasturte berriak bere ibilbideari hasiera eman dio eta horren ondorioz etengabeko ikasketak, ordutegiak, diziplina eta ordena berriro nagusitu dira.

Ikasleek, irailean hasi berria dugun aurtengo ikasturtearen aurrean ilusio berrituz, helburu garrantzitsuz, intentzio on eta borondate maila handiz eta batez ere, inolako zalantzarik gabe, ikasturte berriak eskainiko dituen aukera, ikasbide eta gauza berri guztien aurrean motibazio ikaragarriaz aurkeztzen zaizkigu.

Ikasturte akademiko berri honetan arrakasta lehendabiziko egunetik ziurtatu beharra dago, ikasturtean zehar hainbat alditan seme-alaben eskola-emaiztutan eta euren ikasketen garapenean artetasuna, egonezina eta izaera desberdinetako egoerak uste baino arinago agertzen baitira. Ikasturtea bizi-bizi aurrera doa eta ebaluazioak eta nahigabeak berandu baino arinago mahaigaineratuko direna jakinda, ikasketak, ikasketen planifikazioa eta aurtengo ikasturte akademikoan zehar ikasle bakoitzak lortu beharreko helburuak, lehendabiziko egunetik argi ezarri behar dira.

Ikasle bakoitzak bere eguneroko zeregin eta jardueran egin behar duen ahaleginak, gutxienez egokitasunez antolatutak, programatuak eta ondo planifikatuak izan behar du, zutabe horiek emaitza akademiko bikainak lortzeko ezinbesteko elementu baitira. Egokitasunez antolatzen ez dakienak, denbora eta ahalegina alferrik xahutzeaz gain motibaziorik eza gehitu, eta eraginkortasunik eza, besteak beste, sustatzen ditu.

Tamalez, ikasturte guztian zehar seme-alabak jasotako ikas-emaiztetatik eratorritako gurasoen egonezin eta buruhausteak ikasturteak bere azkenera jotzen duenean gogortasun, gozakaizkeri eta atsekabe gordin guztian agertzea ohiko praktika izaten da.

Lehen bi ebaluazioetan lortutako ondorio larrien aurrean, gurasoek, ikasturtearen azken “txanpan”, ordura arte euren seme-alabak izandako ikasketak-emaizta kaskarrak zuzentze asmotan agertzen duten asmo etsitua lortu ezineko helburua ez bada ere, gauzatzea erabat zaila izaten da.

Giza-jokaerak, oro har, arazoak kon-

pontzeko jauginik ez du izaten harik eta sortzen diren arte, ez arinago, eta, zalantzarik gabe, horrela jardutea errakuntza handia da.

Horrela jardutetik eratortzen den kalterik handiena, aurkeztutako egoera korapilatsua zuzendu eta bere onera eramaten ahalegindu ahal izateko izaten den tarte erabat urri eta murrizta izatean datza.

Emaitza akademikoez ari garen heinean, eskarmentuak, gorago aipatutako egoerei aurrea hartzea zuzendutako edozein ekintzak ohiko ditugun gure joakaera-moduetan, antza denez, ez daukala inolako tokirik erakusten digu, egoera horiek gerta ez daitezen prebentzioak jokabide-arau izan behar lukeenean eta ez, ia kasu guztietan gertatzen den bezala, salbuespen.

Eskola-emaiztak sortutako egoerari eskura izandako denbora erabat urriaren arabera ahalik eta erarik egokienean aurre egin eta onarpen maila desberdinez eta hainbat alditan etsipen handiz ere azken emaitzak jaso ondoren, ikasle eta gurasoek ikasturtea amaitutzat ematen dute, ikastetxeek udaldian zehar ere ikasleek euren ikasketa ohitura apurrak erabat ahaztu ez ditzaten asmotan ezarritako ariketa eta beste zeregin batzuk besterik ez egiteko gutxienean egin behar baino izango ez dituzten udaldi luzeari hasiera emanez.

Ikasturtea, egia esan, metodologia berriak nork bere egin eta ikasleei euren ikasketetan zailtasun mailarik handienak ekar liezazkieketen jakintza arloen aurretiazko baitaratze eta ikaskuntza ahalbidetzeko teknikak lortzeko abagune hobe ezina da. Hala eta guztiz ere, ikasleek eta gurasoek, oro har, kirolarekin, aisialdiarekin eta denbora librearekin zerikusia duten ekintzak, trebetasun intelektualen garapen, oneratzeko eta hobekuntzara zuzendutakoak ez bezala, hobetsi eta lehenetsi egiten dituzte.

Arreta berezia eskaini behar zaion gaia dugu ikasleek ikastetxeetan ematen dituzten ordu mordo guztiekin emaitza bikainak lortzeko gai ez izateko arrazoiak zeintzuk liratekeen zehaztea. Horrela ez izanak eraginda, ikasleak laguntza beharrez saio partikularretara joan beharra besterik ez dauka eta, ondorioz, ikasleari bere ardurapekoak diren zereginak bere kabuz eta buruz bideratzeko gaitasun eza, jakintza maila aurre egi-

teko inoren menpekotasuna etab. irakasten zaizkio, autoestimua pertsonala eta norbere buruarekiko irudia azpijanez.

Hezkuntza-erakundeak ikasleei mailarik behineneko azaleko jakintza eta trebetasunak, oinarritzkoak erabat, baino ez dizkie irakasten; ikasleek, aldi jakin baten metagarri besterik ez duten jakintza maila hori aldiro dituzten ebaluazio-frogetatik eratorritako eskakizunak gainditzeko helburu bakarrerako baino ez da gauza.

Jakina, ikasleek, ikasketen gero eta maila jasoagoaren eraginez, kudeatu beharreko informazioaren konplexutasuna handiagoa da eta, ondorioz, era desberdin batez irakurtzea egokitzen da. Eta, ostera, hezkuntza erakundeetan, 3 LHtik edota 4 LHtik aurrera, ez zaio irakurketari inolako jaramonik ez arretarik egiten.

Egun, hezkuntza arloko erakunderik gehienak, ez die ikasleei irakurketaren arloan oinarri-oinarritzkoa den mailatik haratago irakurtzen irakasten. Ikastetxeek ikasleei irakurle analitiko gaitu izaten irakatsi beharko liekete, baina, zoritxarrez, ez da horrela eta hamabost urtetik gorako eskolaratzea izan ostean ikasleek eraginkortasunez irakurtzen ikasi gabe jarraitzen dutela ikusiz, zerbait txarto dabilela ondorioztatu behar dugu.

Gure gizartean, irakurketa, hainbat urtetan zehar egindako ekintza izatearren edo, gizaseme guztiak irakurtzen dakitenaren uste aizuna sendo errotuta dago eta, ondorioz, trebetasun horretan, irakurketak gure bizitzan zehar garrantzi handiko arazo larririk ekarri ez digunez, inolako hobekuntza beharrik ez duela uste da.

Aipatutakoa egia izatetik ezin urrunago egon daiteke herritarrek funtzionalki alfabetatuta egotearen helburua ez baita bete behar den bakarra. Horrez gainera, erabat gaitasun jasoko irakurleak trebatzea litzateke helburu nagusia, baina, zoritxarrez, ez da hori gertatzen.

Are gehiago, irakurketa trebetasunak azken urteotan gero eta nabariagoa den izugarritzko hondamen bideetan abiara zita direna argi ikus daiteke eta, horren lekuko ikasleek irakurketan eta ulermenean egun duten porrot harrigarria dugu.

Gorago esana, beste arrazoi batzuen artean, irakurketarako gaitasunean hainbeste ekiteak eta ikasleei irakurtzen irakasteko erabilitako metodo zaharkitu eta ez eraginkorrek eragindakoa da. Guzti horrek gorago adierazitako oinarritzko mailetan sortu dituen arazoaren larritasun ikaragarriaren ondorioa

irakurketa mailarik jasoenei inolako garrantzirik eman ez egitearen joera gartzen laguntzea izan da.

Irakurketarako gaitasun orokorra frogak eginez neurtzen da. Irakasleek irakurketa prozesua baitaratzen hasi ahal izateko ikaslearen gaitasuna egiaztatu beharra dute. Beraz, arinegi ibili gura izateak emaitza onik ez dakarrela azpimarratzea garrantzitsu begitantzen zaidanez esanda geldi bedi. Irakurtzen ikasteko prozesua atzeratzea ez da arduratzeko moduko arrazoia, nahiz eta gurasoen aldetik, nahi baino sarriagotan, euren seme/alaba “atzeratuta” edota beste umeek daramaten “erritmo bera” ez daramala pentsatzeko joera eta jarrerak hainbatetan azaltzen diren.

Eraginkortasunez irakurtzen ikastea norberak dituen trebetasunak eta jakintza areagotzeko era bikaina izateaz gain, denbora egokitasunez erabili eta etekinik handiena ateratzeko berebizikoa aukera da.

Egungo gure gizartean, antza denez, oinarritzko gaitasunak dituzten langileen urritasuna, gero eta gehiagoko irakurketarako beharrezina eta horretarako denbora falta ikaragarria ditugu jarraibide nagusiak. Sarritan denborarik eza norbere irakurketa-metodo eta trebetasunak ez hobetzeko aitzakia gisa adierazten da.

Bitartean, derrigorrez irakurri beharreko irakurketak edota zeregin eta jarduera desberdinetan irakurgarri ditugunak etengabe gehituz jarraitzen dute.

Errealitate gordinak, egunero, etengabe, gurasoek oro har irakurketari ematen dieten garrantzi urria, arreta eskasa, hobetzeko asmorik eza, lehen-tasun hutsala eta irakurketarako duten jarrera zimela erakusten dizkigu, eta hori guztia, batez ere euren seme-alabek erreferentzi, eredu eta jarraibidetzat dituztelako eta bestalde gurasoei dago-kienez irakurketarekiko zaletasuna eta ohitura egokiak irakasteko erantzukizuna dutenez gero, kezkarria da.

Bizi ditugun garaion adierazgarri bezala toki desberdinetatik [guraso, irakasle eta helduak] behin eta berriz, hainbatetan, irakurketak dakartzan onurei eta ikasleen hezkuntzan irakurketaren garrantzi gorenari buruzko etengabe entzuten diren aipamenak ditugu.

Helduak eurar, sarritan, esanaren eta eginaren arteko kontradikzio garbian erortzen dira, ez baitaukate, oro har, irakurketarako ohiturarik eta, ondorioz, egunero irakurketari eskainitako denbora oso urria edota hutsaren hurrengo izanik, telebista lehenesten dute eta ez dira, gainera, adinez txikiak diren euren semeekin irakurketa-jarduera baterakoetan eta irakurritakoaren inguruko interpretazioa egiteko praktikan aritzen.

Irakurketari ematen diogun garrantzia, maila eta lehen-tasuna, gure irakur-jardueraren intentsitatearekin, irakurketak gure bizitzan duen lehen-tasun mailarekin eta eremu intelektualean irakurketari ematen diogun hierarkiarekin zerikusi zuzena dauka.

**Gorka Aurre**  
**Prakagorri**  
Durango

**irakurri 4**  
**ALDIZ ARINAGO**

Hobetu egizuz zure irakurketa-abiada eta ulermena!  
Errotik aldatuko dozuz zure irakurketa-gaitasunak.  
Irakurketa-abiada handia eta ulermen bikaina.



**PRAKAGORRI**  
*Reading skills*

**94 491 57 63**

**DURANGO**

**Barrenkale 20**

[prakagorri@prakagorri.es](mailto:prakagorri@prakagorri.es)

**9 urtetik aurrera, adin muga barik, PRAKAGORRI dozu zure eta zure semeen urtenbide**



# Inmobiliariak

**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
Sanagustinalde, 4 - 1. ezk. - 48200 DURANGO

**AGENCIA INMOBILIARIA**  
**Fernando Uribe**  
Barrenkalea, 15 behe. • 946 816 423  
48200 DURANGO • Bizkaia

**ISD**  
Inmobiliaria  
del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666  
[www.inmoduranguesado.com](http://www.inmoduranguesado.com)  
inmoduranguesado@gmail.com

**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO  
[www.inmoetxetxo.com](http://www.inmoetxetxo.com)

## ETXEBIZITZAK ALOKAIKUAN

- DURANGO: 1, 2 eta 3 logelako etxebizitzak alokagai. 500€ hileko.

## ETXEBIZITZAK SALGAI

### DURANGO

- MONTEVIDEO: Apartamentua. Logela 2, komuna, sukaldea eta egongela. Erdi berria.
- ARKOTXA: 4 logela, komuna, bainugela, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Garajea eta ganbara.
- ARTEKALEA: 8 etxebizitza eraikitzen. 1 eta 2 logelakoak. Trastelkuarekin. 140.000€-tik aurrera.
- FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, office-a, 2 komun eta egongela. Garajea eta ganbara.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berrizteko. Inguru onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. Logela 2, komun 2 eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.

### LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta pilotalekua.

### ABADIÑO

- ITURRITXO: Logela bakarrekot apartamentua. Sukalde amerikarra-egongela, komuna eta esekitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelkua.

### ATXONDO

- Logela 2, komuna, sukaldea balkoiarekin, egongela eta bainugela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berria ematen du.

### ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztua. Trastelkua.

## LURSAILAK SALGAI

### BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila. Sarbide ona.

### IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

### MATIENA-ABADIÑO

- 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta fruta-arbolekin.

### OLETA (OTXANDIO)

- 2.300 m2. Fruta-arbolak eta abeletxea ditu. Erreka ondoan kokatuta dagoen lursaila.

### EUBA

- 3000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. Lurzati 2, bakoitzean bifamiliarra eraikitze aukerarekin.

### ABADIÑO

- Bifamiliarra eraikitze 1.100 m2-ko lursaila salgai.

### DURANGO

- Lursail erdia familia biko etxebizitza eraikitze. Proiektua barne.

### ZORNOTZA

- LARREA: 27.000 m2-ko lursaila.

## BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

### DURANGO

- Adosatua. Guztiz jantzia. Erdi berria estreinatze.

### BERRIZ

- MURGOITON kokatuta dagoen baserria salgai. Nekazalturismo edo landa etxe izateko aproposa. Ikuspegi politak.

- EITUA: 5 hektarea dituen baserria. Familia biko etxebizitza eraikitze aukerarekin.

### ETXEBARRIA

- Iturrieta. 5 hektareako baserria.

### URRUTXUA

- Baserria, 8 hektareako lursailarekin. Gernika, Durango eta Bizkaiko Balkoiarekin ondo komunikatuta. Prezioa adosteko prest.

## TXALETAK

- DURANGO-ERRETENTXU: Salgai. Adosatua, etxebizitza bakarrekotak eta bikoak.
- ABADIÑO, OTXANDIO, etab.

## ETXEBIZITZAK SALGAI

- ANDRA MARIA: Halla, sukaldea, jangela, egongela, logela 2 eta komun 2.
  - ANTSO ESTEGIZ: Halla, egongela, sukaldea, logela 2 eta komun.
  - ARKOTZA: 4 logela, sukaldea, egongela, komuna eta bainugela. Trastelkua.
  - ARTEKALEA: Logela, sukalde-jangela eta komuna. Garajea eta trastelkua.
  - ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Ganbara. Trastelkua.
  - ASTOLA BIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
  - LANDAKO ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoi 2. Garajea eta ganbara.
  - ERROTARITXUENA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Terraza 2. Garajea aukeran eta ganbara.
  - ERRETENTXU: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Garajea aukeran.
  - EZKURDI: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Ganbara.
  - F.J. ZUMARRAGA: Halla, egongela, egongelatxa, sukaldea, 3 logela eta komuna.
  - FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea aukeran.
  - IBAIZABAL AUZUNEA: Logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garajea.
  - JUAN ITZIARKO AUZUNEA: Logela 2, sukaldea, egongela, komun 2 eta lursailarekin.
  - JUAN MARI ALTUNA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelkua.
  - KOMENTUKALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Trastelkua. Ganbara.
  - MIKELDI: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garajea eta trastelkua.
  - MONTEVIDEO: Logela 2, sukaldea, egongela eta komuna.
  - MURUETATORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garajea eta ganbara.
  - MURUETATORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garajea eta ganbara.
  - OLLERIA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Jantzia. Garaje itxia 2 kotxerentzako eta trastelkua.
  - PLATERUEN PLAZA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garajea eta trastelkua.
  - SAN AGUSTIN: 5 logela, sukalde-jangela, egongela eta 3 komun.
  - SAN IGNAZIO: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garajea eta trastelkua.
  - SAN IGNAZIO: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara.
  - SAN IGNAZIO: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara. Garajea eta trastelkua.
  - SASIKOA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta trastelkua.
  - UNDATORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- Etxebizitza gehiago salgai Matienan, Abadiñon, Berriren, Zaldibarren eta Otxandion, besteak beste.**

## ETXEBIZITZAK SALGAI

### ASKATASUN ETORBIDEA



- 3 logela, egongela handia balkoiarekin, komun 2 eta sukalde jantzia esekitokiarekin. Garajea eta ganbara. **375.000€**. EGOERA ONEAN.

### DURANGO



- Tabira. Apartamentu erdi berria. Logela, egongela, sukalde jantzia, balkoia eta komuna. Ganbara. Etxe osoa kanpora begira dago. Horma-armairuekin. **160.000€**.

### DURANGO



- Alluitz. Logela, egongela, sukaldea eta komuna. Egoera onean. **160.000€**.

### ABADIÑO



- Duplexa salgai. Beheko solairua egongelarekin, terraza handia, sukalde jantzia, despentsa eta komuna. Lehenengo solairuan 3 logela, komun 2 eta balkoia. Garajea eta trastelkua. Bizitzen sartzeko moduan. **315.000€**.

### BERRIZ



- Duplexa salgai. Eguzkitsua eta ikuspegi ederrekin. Lehenengo solairuan egongela, sukalde jantzia, komuna eta balkoia. Bigarren solairuan, 3 logela eta komun 2. Garaje handia eta trastelkua. **258.000€**.

### IURRETA



- Estreinatze. Logela 2, egongela, sukaldea jantzi gabe eta komun 2. Garaje itxia. Balkoi 2. **270.000€**.

[www.inmoduranguesado.com](http://www.inmoduranguesado.com)

## ETXEBIZITZAK SALGAI

- IZURTZA: 2 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Berriztua. 96.000€.
- BERRIZ: Duplexa. Erdi berria. 4 logela, 3 komun, egongela eta terraza. Garajea.
- ARAMOTZ: 85 m2. 4 logela, egongela eta sukaldea. Eguzkitsua. 120.000€.
- DURANGO: Txaleta. 330 m2. Lorategiarekin. 550.000€.
- F.J. ZUMARRAGA: 110 m2. 4 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Terraza. Igogailua. 187.000€.
- ARTEKALEA: Apartamentua. Erdi berria. 136.000€.
- TXIBITENA: 3 logela, komun 2, egongela eta sukaldea. Terraza. Ganbara eta garaje itxia. 255.000€.
- MATIENA: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Berriztua. Ikuspegi ederrak. 127.000€.
- ASK. ETORBIDEA: 3 logela, komun 2, sukaldea eta egongela handia. Balkoia. Garajea. 252.000€.
- DURANGO: Logela 2, sukaldea office-arekin eta egongela. 138.000€.
- Alokairuan, erosteko aukerarekin. 550€.
- S. ROKE: 3 logela. Eguzkitsua. 200.000€.
- TXALETA. 590 m2. 300 m2-ko lursailarekin. 300.000€.
- MARTXOAREN 8KO KALEA: 3 logela, komuna, egongela, sukaldea eta esekitokia. Terraza. Ganbara eta garajea. 236.000€.
- IURRETA: Logela 2, komuna eta egongela. Terraza. Guztiz berriztua. 110.000€.
- IURRETA: Erdialdean. Lehen solairua. 3 logela eta komuna. Bizitzen sartzeko moduan. 93.000€.
- LANDAKO: Apartamentua. Trastelkua eta garajea. 140.000€.
- DURANGO. Ezki. Duplexa. Logela 2. Bizitzen sartzeko moduan. Lorategiarekin. 185.000€.
- ASTEPE: Etxebizitza altua. 3 logela, komun 2 eta sukalde esekitokiarekin. Terrazak. Trastelkua eta garajea.
- MIKELDI: 3 logela, komun 2 eta egongela handia. Terraza 2. Berogailua, igogailua eta ganbara. 186.000€.
- ARTEKALEA: 85 m2. Logela 2 eta komuna. Berriztua. 140.000€.
- FRANTZISKO IBARRA: 12 urte dituen etxebizitza. Logela 2, komuna, sukaldea eta egongela handia. Ganbara eta garajea. 235.000€.
- MONAGOTORRE: 70 m2. 3 logela, egongela eta sukaldea. Terraza. Eguzkitsua.
- PLATERUEN PLAZA: 3 logela, komun 2 eta egongela handia. Trastelkua eta garajea.
- F.J. ZUMARRAGA: 110 m2. 4 logela, egongela eta sukaldea despentsarekin. Terraza. 169.000€.
- TABIRA: Apartamentua. Erdi berria. Sukalde eta komun jantziak. Ganbara. 160.000€.
- IURRETA. Uralde: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Leiho berriak. Igogailua. Trastelkua. 130.000€.
- BERRIZ. Zengotitabengoa: 120 m2. 4 logela eta komun 2. Terraza 2. 216.000€.
- ABADIÑO: Txaleta. 300 m2. Lorategiarekin.
- MALLABIA: Baserria. Alokairuan. 1.300€.
- GARAI: Baserria. Alokairuan. 1.000€.
- ZALDIBAR: Berriak. Azkeneko etxebizitza. 144.000€.

[www.inmoetxetxo.com](http://www.inmoetxetxo.com)



AFEL Nº 1473

INMOBILIARIA

ETXELAN

NIZETO URKIZU, 12 BEHEA - ELORRIO  
946 550 358 - info@inmobiliariaetxelan.com  
www.inmobiliariaetxelan.com

**SALGAI**

**• ELORRIO**  
REF.499 . 70 m2-ko pisua, 2 logela, bainugela 1, sukalde amerikarra. 155.000€  
TABERNA BI SALGAI. KONTSULTATU.  
REF. 579. 200 m2-ko etxea eta 1.700 m2 inguruko lursaila. 390.600€  
REF.582. 76 m2-ko pisua, 3 logela, bainugela 1, egongela eta sukaldea. 93.300€  
REF. 472. 65 m2-ko PISU BERRIA, 2 logela, bainugela 2, sukalde amerikarra. 132.000€  
REF. 547. 50 m2-ko apartamentua, logela 1 eta bainugela. 154.500€  
REF.474. Pisua. 95 m2. 3 logela. 2 bainugela. Garajea  
Lokalak, dimentsioak: 250 m2, 170 m2, 140 m2, 121 m2, 101 m2, 62.5 m2 eta 105 m2.  
REF. 473. 65 m2-ko PISU BERRIA, 2 logela, bainugela 2, sukalde amerikarra. 161.000€  
REF. 407. 65 m2, 2 logela, bainugela 1, sukaldea eta egongela. Garaje itxia barne. 148.600€  
REF.550. 95 m2-ko pisua, 3 logela, 2 bainugela, sukaldea eta egongela. 185.300€  
REF. 565.- 75 m2-ko pisua, 3 logela, bainugela 1, egongela eta sukaldea. 125.000€  
REF. 568.- 115 m2-ko pisua, 4 logela, 2 bainugela. 40 m2-ko trastelekua 155.000€  
Lursailak: Unifamiliarra eraikitzeko eta bifamiliarra eraikitzeko. 230.000 / 330.000 .  
BI LOGELAKO ETXEBIZITZA. 60.000€  
70 m2-ko pisua, 2 logela, bainugela 1, egongela eta sukaldea. 40 m2-ko trastelekua. 84.000€  
**• ATXONDO**  
REF.495. Pisua. 95 m2. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela eta terraza. Garaje itxia (prezioan ez dago barne) 200.000€  
REF.469. Adosatua. 200 m2. 5 logela, 4 bainugela, egongela-sukaldea, terraza-lorategi. 2 garaje. Kontsultatu.  
Ref.428. Baserria. 383 m2, 3 logela, bainugela, egongela-sukaldea. Lursaila. 385.000€  
Ref.427. Baserria. 900 m2, 9 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea. Lusaila. Kontsultatu.  
Ref.333. Pisua. 75 m2, 3 logela, bainugela, egongela, sukaldea. 180.000€  
**• ABADIÑO**  
Txaleta, 4 gela, 2 bainugela, sukaldea, egongela. Berri-berri dago. 570.000€  
Ref.372. 83 m2-ko pisua, 3 gela, 2 bainugela, egongela eta sukaldea. 246.000€  
Ref.325. Pisua, 90m2, 3 gela, bainugela 2, sukaldea eta egongela. 105.000€  
**• BERRIZ**  
Ref. 393. Pisua, 80 m2, logela 2, bainugela, egongela, sukaldea, balkoia. 162.000€  
60 m2-ko pisua, 2 logela, bainugela, egongela, sukaldea. 126.000€  
Ref. 401. Pisu ia berria, 65 m2, 2 logela, bainugela 1, sukaldea eta egongela. 204.000€  
Lursailak: 4 lursail salgai, eraikitzeko aukerarekin.  
REF. 540.- TXALET BERRIA 1.200 m2-KO LURSAILEAN ERAIKIA. 600.000€  
Ref.373. 68 m2-ko pisua, 3 logela, bainugela 1, egongela, sukaldea. Aukera paregabea  
**• ZALDIBAR**  
Ref. 378. 90 m2-ko pisua, 3 logela, bainugela 1, sukaldea eta egongela. 158.000€  
Ref. 391. Pisua, 70 m2, 3 logela, bainugela 1, sukaldea, egongela. 125.000€  
Ref. 392. Pisua, 75 m2, 3 logela, bainugela 1, sukaldea, egongela. 150.000€  
REF. 570. Pisua, 3 logela, bainugela 1, sukaldea, egongela eta garajea. 159.000€

Sartu gure webgunean  
www.inmobiliariaetxelan.com

# anboto.iragarkilaburrak.com

**1 HIGIEZINAK**

**2 TEKNOLOGIA**

**3 LANA/NEGOZIOAK**

**4 DENETARIK**

**5 IBILGAILUAK**

**6 HARREMANAK**

**7 AISIA/KIROLA**

**8 FAMILIA/ETXEA**

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

**Higiezinak**

**ETXEBIZITZAK**

**SALDU**

**Bilbo.** 75 m2 erabilgarri. Kalitate ona. Egurra. Guztiz berriztuta. Garajea barne (Plaza Berriko aparkalekuan) helbide elektronikoa: bilbosalgai@gmail.com.

**Durango.** Duplexa salgai Tabiran. 4 logela, bainugela 2, sukaldea, jangela, egongela, despentsa, garaje itxia. Dena berritua. 330.000 euro. Tel: 665-72 99 36.

**ERRENTAN EMAN**

**Elorrio.** Etxe bat alokatzen da Elorrión, 2.500 metro karratuko lursailarekin. Tel.: 616-93 63 51 (Manu).

**GARAJE / TRASTEROAK**

**SALDU**

**Durango.** Trastelekua salgai Astepe auzunean (Durango). 18 metro karratu eta bi altuera, leihoa eta ate berria. Tel.: 665-70 75 35.

**Lana - negozioak**

**LAN ESKARIAK**

**OSTALARITZA**

**Durangaldea.** Lan bila nabil sukaldari laguntzaile lanetarako edo jatetxe batean aritzeko. Garbiketan edo pertsona nagusiak zaintzen ere lan egingo nuke (esperientzia dut). Egunez. Tel.: 632-49 11 30.

**ETXEKO LANAK**

**Durangaldea.** Goizetan, asteartetan izan ezik, etxe partikularrak edo lokalak garbitzeko prest nago. Tel.: 648-02 56 15 (Eneritz).

**PERTSONAK ZAINDU**

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzen ditut barneko langile edo eguneko langile gisa, orduka edo gauez, erreferentzia

onekin eta dokumentazioarekin. Tel.: 631-55 79 04.

**Durangaldea.** Esperientziadun neska goizetan umeak eskolara eramateko eta etxea garbitzeko prest. Tel.: 690-77 64 31.

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zein umeak zaintzen edo garbiketan. Barneko langile edo eguneko langile gisa, orduka zein gauez. Tel.: 632-11 82 17.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko, eta garbiketan aritzeko prest. Tel.: 620-46 50 53 (Jovani).

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zein umeak zaintzen, edo garbiketan. Tel.: 680-61 87 86 (Ingrid).

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Tel.: 631-82 46 08 (Juan).

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Tel.: 632-53 69 17 (Froilan).

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketan; egunez. Tel.: 682-20 48 73.

**Durangaldea.** Barneko langile gisa pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tel.: 608-67 62 18.

**Durangaldea.** Barneko langile gisa lan bila dabilen neska bat naiz. Esperientziagaz eta lanean berehala hasteko moduan. Tel.: 631-36 95 87 / 602-34 36 48.

**IRAKASKUNTZA**

**Durango.** Psikologian lizentziatutako neska euskalduna Lehen Hezkuntzako ikasleei eskola partikularrak emateko prest. Tel.: 685-77 13 90.

**NORBANAKOEN IRAGARKIAK**

**Interneten eta paperean, doan:** Partikularrentzako. Erregistratu [www.anboto.iragarki-laburrak.com](http://www.anboto.iragarki-laburrak.com) webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org). Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23.

**Paperean, ordainduta:** Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

**Durangaldeko enpresa batek zenbakizko kontroleko FRESATZAILEA behar du**

Lehen mailako ofiziala, Heidenhain-i buruzko ezagutzarekin, eta serie laburreko eta pieza unitarioen mekanizazioan esperientzia duena (makina programazioa).  
**Deitu: 687 943 916**

**OSTALARITZA**

**Abadiño.** Sukaldari laguntzailea behar dugu asteburuetan lan egiteko, Abadiñoako taberna batean. Esperientzia izatea baloratuko da. Tel.: 660-18 74 05.

**GAINERAKOAK**

**Iurretak.** Ibilgailu saltzaileak behar ditugu. Interesatuak curriculum eta argazkia bidali "komertziala" erreferentziaz: [rrhh@gaursa.com](mailto:rrhh@gaursa.com)

**Denetarik**

**SALDU / EROSI**

**Belar fardoak saltzen ditut.** Belar fardoak saltzen ditut, kalitatezkoak; ertainak 3,5 euroan eta handiak 4 euroan. Uztailekoak dira. Interesatuta bazaude, deitu: 94 658 25 56 / 635-74 49 71.

**Aisia - kirola**

**KIROLAK**

**SALDU**

**Orbea Zeus Euskaltel bizikleta salgai.** Orbea Zeus Euskaltel bizikleta salgai. Aluminiozkoa, 2000. urtekoa. Neurria: 54 (m). Simano 105 hirukoitza. Gurpilak: Rigida Xone Proline. Prezioa: 390 euro. Tel.: 626-46 44 22 (Mikel).



...eta urte  
**ASKOTARRAKO!**

DIRU EKARPEN ETA BORONDATEZKO LAN KANPAINA

[www.plateruena.net](http://www.plateruena.net)







> ZORION AGURRAK

✉ [zorionak@anboto.org](mailto:zorionak@anboto.org)  
eguziteneko 14:00ak arteko epea



> Asteon familiara heldu jakun **Elene** txikiari ongietorriak beroena, aittite-amama, aitatxo ta amatxon partez!



> Zorixonak señoitieri etxeko danen partez eta Egoitzen partez.



> **Peiok** gaur, urriak 3, urtetxo bat egin du. Zorionak amama, aittite eta osaba Jonen partez.



> Zorionak **Urko!** Urriak 1ean urtetxo bi egin dituzu! Muxu handi bat etxeko guztien partez!



> Zorixonak Abadiño **Oihantxuri!** Martitzenean 3 urte egin ditu. Besarkada bat familia osoaren partez!



> Zorionak **Malen!** Zapatuen zure urtegune! Zazpi mosu etxeko danon partez! Ondo-ondo pasau!



> Urriaren 3an **Aiorak** 3 urte beteko ditu. Zorionak Udane lehengusinarekin partez. Oso ondo pasau egune.



> **Aiorak** 5 urte egin dauz irailaren 30ean. Zorionak amama, aittite, ama, aita eta Oierren partez!




> Zapatuan **Anaren** urteguna da. Zorionak Ana denon partez, eta egun zoragarria izan dezazula!



> Durangoko **Angel Ania** eta bere iloba **Liherrek** 15ean eta 23an urteak beteko dituzte. Zorionak familiaren partez!



> **Pello Bikandik** 11 urte beteko dauz urriaren 5ean. Zorionak guapo! Mosu handi bat amama Mari Joseren partez.



> Zorionak **Xabat!** 3 urte gure gizontxuek. Espero dogu egun polit bat pasatzie, segi beti bezain alai eta zoriontsu!



> **Peru Barroeta** Letek urriaren 7an 5 urte egingo dauz! Zorionak etxeko danen partez eta mosu bat Kubatik!



> Ongi etorri **Izei!** Kuadrillako guztixon partez: Zorionak eta mosu handi bat familia!



> Zorionak aittite eta amama! Alkarregaz 50 urte egin eta gero, Otxandixoko plazan barriro alkartuko gara egun eder bat pasetako. Mosu haundi bat danon partez!



> Zorionak **Mila!** Oraingoan ere zuri tokau jatzu pernilen zozketa!



> Bizidun elkarteak lagunok Urdaibaira irteera egin dugu hilaren 24an. Paraje zoragarriak ikusi ditugu.



Jose Antonio Agirre, 4  
946 200 869  
Avda. Montevideo, 1  
946 204 383

> Zorionak **Irati** (559. alea)! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

> BOTIKAK

**BARIKUA, 3** - 09:00-09:00

- **Balenciaga** (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
- **Goiria, Mari Carmen** (Sabino Arana 6 - Zornotza)
- 09:00-22:00
- **Jaio-Olabarrieta** (Errekakale 6 - Elorrio)
- **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)

**ZAPATUA, 4** - 09:00-09:00

- **Bazan Diaz** (Uribarri 5 - Durango)
- **Goiria, Mari Carmen** (Sabino Arana 6 - Zornotza)
- 09:00-13:30
- **Navarro** (Arteakalea 6 - Durango)
- **Balenciaga** (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
- **Sagastizabal** (Askatasun etorb. 19 - Durango)
- **Campillo** (Montevideo etorb. 24 - Durango)
- **Unamunzaga** (Muruetatorre 2C - Durango)
- **De Diego** (Intxaurrondo 22 - Durango)
- **Irigoin** (Bixente Kapanaga 3 - lurreta)
- **Larrañaga-Balentiaga** (Berrio-Otxoa 6 - Elorrio)
- **Urizar** (Gabiola 2 - Berriz)
- **Melero, Rosa Mari** (San Pedro 31 - Zornotza)
- 13:30-22:00
- **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)

**DOMEKA, 5** - 09:00-09:00

- **Navarro** (Arteakalea 6 - Durango)
- **Goiria, Mari Carmen** (Sabino Arana 6 - Zornotza)
- 09:00-22:00

- **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
- ASTELEHENA, 6** - 09:00-09:00
- **Gaztelumendi** (J.A. Abasolo 2 - Durango)
- **Melero, Rosa Mari** (San Pedro 31 - Zornotza)
- 09:00-22:00
- **Urizar** (Gabiola 2 - Berriz)
- **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
- MARTITZENA, 7** - 09:00-09:00
- **Sagastizabal** (Askatasun etorb. 19 - Durango)
- **Melero, Rosa Mari** (San Pedro 31 - Zornotza)
- 09:00-22:00
- **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
- **Etzebarria** (Montevideo etorb. 2 - Durango)
- **Melero, Rosa Mari** (San Pedro 31 - Zornotza)
- 09:00-22:00
- **Larrañaga-Balentiaga** (Berrio-Otxoa 6 - Elorrio)
- **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)

**EGUAZTENA, 8** - 09:00-09:00

- **Irigoin** (Bixente Kapanaga 3 - lurreta)
- **Melero, Rosa Mari** (San Pedro 31 - Zornotza)
- 09:00-22:00
- **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
- EGUENA, 9** - 09:00-09:00
- **Irigoin** (Bixente Kapanaga 3 - lurreta)
- **Melero, Rosa Mari** (San Pedro 31 - Zornotza)
- 09:00-22:00
- **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)

> TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak ..... 112  
Gurutze Gorria ..... **94 681 09 49**  
Osakidetza ..... **94 600 72 00**  
Ertzaintza ..... **94 466 93 00**

> GARRAIOAK

Euskotren ..... **902 54 32 10**  
Bizkaibus ..... **94 448 40 80**  
Pesa ..... **902 10 12 10**  
Continental Auto ..... **945 286 466**

> TAXIAK

Abadiño ..... **94 681 44 70**  
Matiena ..... **606 459 988**  
Durango Geltokia ..... **94 681 10 01**  
Elorrio Geltokia ..... **94 682 00 40**  
J.L. Uriarte ..... **670 402 002**  
I. Estebez ..... **670 678 273**  
M. Galeano ..... **670 409 330**  
lurreta .....  
Taxi auzunea ..... **688 618 690**  
Berrizko auzo taxia ..... **620 022 800**

> UDALAK

Abadiño ..... **94 621 55 30**  
Atxondo ..... **94 682 10 09**  
Berriz ..... **94 682 45 84**  
Durango ..... **94603 00 00**  
Elorrio ..... **94 658 27 12**  
Garai ..... **94 681 63 93**  
lurreta ..... **94 620 12 00**  
Izurtza ..... **94 681 35 48**  
Mallabia ..... **943 17 14 61**  
Mañaria ..... **94 681 89 98**  
Otxandio ..... **945 45 00 20**  
Zaldibar ..... **94 682 70 16**

> UDALTZAINGOA

Abadiño ..... **94 621 55 33**  
Berriz ..... **94 682 40 36**  
Durango ..... **94 603 00 00**  
Elorrio ..... **94 682 02 18**  
lurreta ..... **94 620 08 88**

12° 21° ZAPATUA ☁

8° 16° DOMEKA ☁

9° 24° ASTELEHENA ☀

12° 25° MARTITZENA ☀

> AZOKA-BASERRITIK-PLAZARA



**Abadiño**  
(Traña-Matiena)  
Eguaztenetan  
10:00etatik aurrera  
**Durango**  
Zapatu goizetan  
**Zornotza**  
Domeka goizetan

ASTEKO SALNEURRIAK:

Letxuga.....**0,80 euro**  
Letxuga haritz hostoa .....**1 euro**  
Azelga .....**2 euro/kg**  
Espinaka txorta .....**1,20 txorta**  
Berakatz freskoa .....**1,50 txorta**  
Ilarrak .....**6 euro/kg**  
Tomate kontserba...**3,90 euro/potea**  
Arrautzak.....**3,80 euro/dz**  
Idiazabal gazta.....**17 euro/kg**  
Gari integraleko ogia .....**3,30 euro**



## “Artisautzarako dudana zaletasuna ogibide bihurtu gura izan dut”

Adibidez, bitxiak, koadroak, orri-markatzaileak eta gonbidapenak sortzen ditu Anhitak, papera erabilia

**> AKUILUA** Jone Guenetxea **Artisautzaren munduan bere lekua egiten ari da Anhita Mol. Parte hartzen duen azoketan izan duen harrera onak aurrera egiteko kementa eman dio. Elorriori tailer bat zabaltzea da bere hurrengo erronka.**

**Zerk ekarri zaitu Elorriora?**  
Nire senarra lanera etorri zen Elorriora. Ondoren, Keralan ezkondu ginen, eta beragaz etorri nintzen orain lau urte.

**Zelan hartu zintuzteten Elorriori?**

Oso ondo. Hasieran ez nuen hizkuntza ezagutzen, eta horixe ikastea izan zen lehenengo lana. Jendea oso jatorria izan da gurekin, eta bertakoak garelako sentitzen dugu.

**Aldaketa handia izan zen?**  
Indian ere gure estatutik kanpo egiten genuen lan, familiarengandik urrun, antzeko egoera batean. Beraz, alde horretatik egoera antzekoa izan da.

**Zer da Elorriotik gehien gustatzen zaizuna?**  
Den-dena gustuko dugunez, ezingo nuke gauza zehatz bat esan. Euskal Herria maite dugunez, gure semea Julen izena jarri diogu, gainera. Keralak Euskal Herriaren antz handia du, eta etxean bageunde bezala sentitzen gara.

**Artisautzan diharduzu. Zelan ekin zenion bide horri?**  
Zaletasuna ogibide bihurtu gura izan dut. Langabezia nengoen, eta orain ikusi dugu

lan bat sortzea lana kanpoan aurkitzea baino errazagoa dela.

**Zure produktuek zer ezaugarri dute?**  
Paperezko artisautzan dihardut. Filigrana deitzen den teknika bat erabiltzen dut. Bitxiak, orri-markatzaileak, koadroak eta gonbidapenak sortzen ditut, adibidez.

**Orain gonbidapenak euskaraz egiten hasiko zara.**  
Bai, jendeak esaten dit ez dituela aurkitzen gustukoak dituen ezkontzetako gonbidapenak euskaraz, beraz, horretan jardutea erabaki dut.

**Ferixa Nausiko jaietan zuek egindako artisautza produktuekin osatutako postua jarri zenuen. Beste azoka batzuetara ere joaten zara?**  
Jaietan oso ondo irten zen dena. Gainera, bigarren eskuko azokan eta artisautza azokan ere parte hartu nuen. Bizkaian antolatzen dituzten beste azoka batzuetara ere joaten naiz.

**Zein harrera izaten duzu?**  
Produktu hauek berriak direnez, harrera oso ona izan dute. Paperez eginda daudela esaten diegunean jendea harritu egiten da. Ukitu daitekeen galdeztzen digute. Papera denez, oso delikatuak izango dela pentsatzen dute, baina gaineratik duen barniz ekologikoagaz busti egin daiteke.

**Indian ere artisautzan jarduten zenuen?**  
Eskulanak betidanik izan ditut gustuko. Postalak egiten nituen

lagunei emateko, eta apurka-apurka belarritakoak eta bestelako produktuak egiten hasi nintzen.

**Teknika hau zelan ikasi duzu?**  
Bitxigintzan probak egiten hasi nintzen. Aldizkariaren papergaz hasi nintzen. Ondoren, kartulinak erabiltzeari ekin nion. Facebooken ipintzen hasi ginen, eta lagunak gustuko zutela esaten zidaten. Beste pertsona batzuei oparitzeko bitxiak enkar-guz egiten nitzien.

**Webgunea ere baduzue.**  
Bitxiak saltzeko eta ezagutzera emateko azoketara joaten, eta *anhita.es* webgunea martxan ipintzen ari gara.

**Bitxigintzan zer pauso eman gura dituzu?**  
Tailer bat martxan jartzea da asmoa, bezeroak ere bertara etorri ahal izateko. *Made in Elorrio* produktuak izango lirateke.

**Produktu hauek ekoizteko materiala nondik ekartzen duzue?**  
Materiala Ingalaterratik ekartzen dugu. Papera ebakitako zatietan erosten dugu.

**Kainabera elkarteak antolatzen duen bazkarian Indiako janaria prestatzen duzue. Osagaiak non erosten dituzue?**  
Osagaiak Indiara goazenean erosten ditugu sarritan, hemen aurkitzea zaila izaten da eta. Egun polita izaten da.



### LAUHORTZA

**AITOR AURREKOETXEA**  
EHUko irakaslea



### Estatu Islamikoa

Duela hilabete batzuk jakin genuen Al-Qaedaren estrategia-ekin bat ez zetozen yihadista suni multzo batek Iraketzat eta Levanterentzat Estatu Islamikoa sortu zuela. Al-Qaedaekin gertatzen ez zen bezala, hauek eremu edo lurralde zehatz batean kalifa-herri bat eraiki nahi dute, eta handik jihad edo guda santua bultzatu, eta mundu osora zabaltzeko.

Ekialdeko gizarteari asko kostatzen zaio hain muturrekoak diren auziak ulertzea, eta, egia esan, normala da, zeren eta nahiz eta gure artean integratuta erlijiosoak izan, integratuta horiek ez dute inoiz islamiar fanatik horiek duten determinazio suntsitzaile-rik izan.

Zer egin daiteke fenomeno hauek ulertzeko eta, aldi berean, horien kontra borrokatzeko?

Bada, zoritxarrez, Palestina-ko, Euskal Herriko, Kolonbiako, Kataluniako eta Saharako gatazkekin gertatzen ez den bezala, Estatu Islamikoarekin ez dago ezer negoziatzerik, zeren eta mujahidin hauek euren taldekoak ez diren beste guztiak akatu egin nahi dituzte, eta xaria (lege islamiarra) zorrozki inposatu ere bai.

Beraz, eta gure artean biziki popularra ez den arren, mundu zibilizatuak, musulmanak diren estatu askorekin batera, beraien esku dagoen guztia egin beharko lukete Estatu Islamikoaren egitura estrategikoak lehen baino lehen desagiteko eta zapuzteko. XXI. mendean ez da onargarria Estatu Islamikoak ordezkatzen duen basakeria planifikatua onartzea. Eta, jakina, honek ez du zerikusirik Israelek edo AEBek egiten dituzten beste barbaridade batzuekin, Estatu Islamikoa desagerraraztea edozein ikuspegitik begiratuta justua baita.



**XVI. EUSKAL ELIKADURA ETA ARTISAUTZA AZOKA**  
Andaparape 11:00 - 15:00 | Urriak 5

